

# Hezkuntza elebiduna Euskal Herrian: 30 urteko ibilaldia<sup>1</sup>

Educación bilingüe en Euskal Herria: Un recorrido de  
30 años

Education bilingue au Pays Basque : Un parcours de  
30 ans

Bilingual education in the Basque Country: a 30 year  
journey

MAIA LARRETXEA, Julian  
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-02-03

Noiz onartua: 2015-07-20

---

<sup>1</sup> Esperientzia elebidunak lehenago hasiak ziren Euskal Herrian ikastolen bidez, baina guk lan honetan 1982-83 ikasturtea hartzen dugu hasierako erreferentzia gisa, garai horretakoa baita EAeko Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarrizko legea.

Artikulu honen gaia da Euskal Herrian azkeneko 30 bat urteotan garatu den hezkuntza elebidunaren izaera eta bilakaera, euskararen lurraldeko hiru zati politiko-administratiboak eta haien arteko antz-aldeak kontuan hartuta: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea. Puntu hauek aztertzen dira: oinarrizko lege-euskarriak, hezkuntza-ereduen hizkuntz ezaugarriak, ereduen eskarian izan den bilakaera jendartean, haien emaitzen ebaluazioa, eta sistemaren erronkak etorkizun hurbilean.

**Hitz-gakoak:** euskara, hezkuntza elebiduna, hezkuntza ereduak, hezkuntza sistemaren bilakaera, emaitzak.

El objeto de estudio de este artículo es el carácter y la evolución de la educación bilingüe que se ha desarrollado en Euskal Herria los últimos 30 años. El estudio tiene en cuenta los tres ámbitos administrativos de la tierra del euskera, con sus similitudes y diferencias: Comunidad Autónoma del País Vasco, Comunidad Foral Navarra y País Vasco Norte. Se abordan los siguientes puntos: fundamentos legales básicos, características lingüísticas de los modelos educativos, evolución de la demanda de la población respecto a los modelos lingüísticos, la evaluación de sus resultados y los desafíos del sistema en el futuro próximo.

**Palabras clave:** euskera, educación bilingüe, modelos lingüísticos, evolución del sistema educativo, resultados.

Le sujet d'étude de cet article est le caractère et l'évolution de l'éducation bilingue au Pays Basque au cours des 30 dernières années. Cette étude prend en compte trois domaines administratifs des territoires de langue basque, avec leurs similitudes et leurs différences : la Communauté Autonome du Pays Basque, la Communauté Forale de Navarre et le Pays Basque Nord. On y aborde les points suivants : principaux fondements légaux, caractéristiques linguistiques des modèles éducatifs, évolution de la demande de la population sur les modèles linguistiques, évaluation des résultats et des défis du système dans un futur proche.

**Mots-clés:** langue basque, éducation bilingue, modèles linguistiques, évolution du système éducatif, résultats.

The nature and development of bilingual education in the Basque Country over the last 30 years is discussed, bearing in mind the three political-administrative areas of the Basque speaking region and their similarities and differences: the Basque Autonomous Community, the Charter Community of Navarre and the northern Basque Country. The following aspects are analysed: basic legal features, language features of the teaching models, evolution of demand for the different models on the part of the population, evaluation of the results achieved and the challenges facing the system in the near future.

**Keywords:** Basque, bilingual education, language models, evolution of education system, results.

## 1. Sarrera

Euskal Herria osoan hartuz gero erran daiteke herri hirueleduna dela, bi zati elebidun dituen. Izan ere, badira hiru hizkuntza franko erabiltzen direnak Euskal Herriaren lurraldeko zazpi probintzietan: Pirinioen iparraldean euskara eta frantsesa baliatzen dira, eta mendi horien hegoaldean, berriz, euskara eta gaztelania.

Euskara hizkuntza jatorri ez-indoeuoparrekkoa da eta prehistoriaz geroztik dago Euskal Herri gisa ezagutzen den lurraldean. Adiera horretan erraten da euskara dela Euskal Herriaren «berezko» hizkuntza. Bestalde, jakina denez, gaztelania eta frantsesa dira historikoki estatu espainiarrari eta frantsesari estu-estu lotuak egon diren hizkuntzak. Estatu horiek biek politika aktiboa egin dute etengabe beren hizkuntza ofiziala sustatzeko, eta euskara, berriz, edo arretarik gabe egon izan da batzuetan, edo jazarpena jasan du beste zenbaitetan. Oro har, politika hori denbora luzean indarrean egonda euskara hizkuntza ahula da frantsesarekin eta gaztelaniarekin duen harreman diglosikoan/desorekatuan, non frantsesa eta gaztelania diren hizkuntza indartsuak, zein bere estatu-mugen barrenean.

Ezaguna da, orobat, kulturalki Euskal Herria den lurraldeak zazpi probintzia dituela bi estaturen barrenean, eta horiek denak hiru errealitate politiko-administratibotan bilduak direla. Espainiako estatuan diren lau probintziek bi Autonomia Erkidego osatzen dituzte: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoa deitzen dena (EAE), hiru probintziak osatua (Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak); eta bestetik, Nafarroa<sup>2</sup> probintzia, berak bakarrik osatzen baitu Nafarroako Foru Komunitatea (hemendik aitzinera, NFK). Pirinioez iparraldera diren hiru probintziek (Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak) ez dute egiten beren gain erkidego politikorik ez administratiborik, zeren Biarno lurraldearekin batean osatzen baitute *Département des Pyrénées-Atlantiques* izenekoa, denak ere Akitania izeneko eskualdearen barrenean direla. Beraz, hemendik aitzinera hiru errealitate politiko-administratibo

---

<sup>2</sup> Ezaguna denez, Nafarroak bi zati ditu: Nafarroa Garaia, Espainiako estatuan, eta Nafarroa Beherea, Frantziako estatuan. Aipamen honetan, Nafarroa Garaiaz ari gara, Espainiako estatuan dena.

desberdin horiek banaka aztertuko ditugu: bat, Pirinioez iparraldean dagoen *Iparraldea*; bi, *Nafarroako Foru Komunitatea* (NFK); eta hiru, *Euskadiko Autonomia Erkidegoa* (EAE).

Ikuspegi historiko gutieneko bat izateko, egin diezaiokegu begiratu txiki bat XX. mendeko egoerari. Mende horren erdi aldean euskara nabarmenki sartua zen hizkuntza-ordezkatze prozesu batean: hizkuntza nagusien jakitea eta erabilera gero eta gehiago ari zen hedatzen, eta aldi berean euskararen hiztunak gero eta gutiago ziren eta murriz-murriz zen euskaraz bidera zitekeen funtzio sozialen kopurua. Joan den mendearen erdian (50eko eta 60ko hamarkadetan) euskarak ez zuen batere presentzia axolazkorik «bere» lurraldeetako ezein hezkuntza-sisteman. Testuinguru horretan, ordea, Franco jeneralaren diktaduraren denboran, Hegoaldeko euskal lurraldeetan sortu zen mugimendu bat aski garrantzitsua, besteak beste euskararen defentsa ere bere gain hartu zuena (Euskaltzaindia-Siadeco, 1977; Euskaltzaindia-Siadeco, 1979). Franco hil ondotik (1975), espainiar estatuan laster eratu ziren Autonomia Erkidegoak, eta Autonomien Estatua delako antolamenduaren barrenean (*el estado de las autonomías*) erkidego horiek zenbapaiteko erabakimen politikoa erdietsi zuten. Horrek bidea irekia utzi zuen hizkuntza-politikak beste norabide batean jartzeko, bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta bai Nafarroako Foru Komunitatean, euskarari dagokionez. Estatu frantsesean, berriz, errateko moduan euskarari ez ikusia egiten zioten agintaritzatik. Azken urteotan, baina, euskara pixka bat hobeki balioesten ari da Iparraldean ere, nahiz eta oraindik EAEn eta NFKn baino indar txikiagoarekin<sup>3</sup>.

Euskal Herriko bazterretan hagitz errealitate soziolinguistiko desberdinak ikus daitezke, eta hezkuntza sisteman ageri diren egoerek eta emaitzek ere ugaritasuna dute ezaugarri nagusi bat. Errealitate ugari hori eratzeko, maila batzuetako gertakari edo erabaki batzuek eragiten dute.

Goieneko mailatik hasteko, estatuen mailan, planteamendu desberdinak ikusten dira euskararen gaineko hizkuntz-politikei dagokienez. Espainiar eta frantziar estatuak bat datoz ezaugarri batean: biek ere beren hizkuntza ofizialak sustatzen dituzte (gaztelania/espainola eta frantsesa, hurrenez hu-

<sup>3</sup> Gero ikusiko ditugu datu batzuk erran hori egiaztatzeko.

rren). Baina desberdin jokatzen dira nolako politika ezarri behar den beren lurraldeetako hizkuntza gutxituekin (eta beste hizkuntza batzuekin batean, hizkuntza gutxitu bat, bai Espainian eta bai Frantzian ere, euskara da). Horrek sortzen du lehenengo desberdintasuna, estatu bakoitzeko legediaren mailatik abiatuta.

Bigarren maila batean, Euskal Herria hiru erkidego politiko-administratibo desberdinetan banatua dago, eta horietako bakoitzean bertako agintaritzek politika desberdinak ezartzen dituzte beren lurraldeetako hizkuntzentzat, betiere estatu bakoitzak ezartzen duen lege-marko orokorraren barrenean. Hau da, estatu beraren barrenean ere, maila apalagoko erakundeek, bakoitzak bere hizkuntza-politika ezartzen du, lege-markoak hartarako bidea uzten dion neurrian. Adibidez, Espainiako estatuaren barrenean, EAEn eta NFKn politika desberdinak aplikatzen dira, eta horrek ere eraginen du egoera soziolinguistikoan eta hezkuntzazkoan, eta haien bilakaeran ere bai.

Hirugarren maila batean, azken emaitzaren ugaritasuna handitzeko, tokiko botereen eremua hartu behar da aintzat. Botere lokalek ere ez dute sentiberatasun bera alde guzietan eta hizkuntza politika desberdinak ezartzen dituzte beren aginte-mailan eta esparruan, horrek ere eragiten duelarik azken emaitzan (adibidez, udaletxe batek eragin nabaria izan dezake udalerriko ikastetxeen aurrean). Bestalde, kontuan hartu behar da beste ezaugarri bat ere: maila desberdinetako botereek beren hizkuntza-politikak ezartzen ahal dituzte, bai, baina horrek ez du aldatzen hizkuntzaren eta hiztunen egoera egun batetik bestera. Bestela erranik: bi toki desberdinetan hizkuntza politika bera ezarrita ere, emaitzak ez dira berdinak izanen baldin eta oinarriko egoera soziolinguistikoak desberdinak badira (adibidez, toki batean euskara kalean ausarki erabiltzen bada eta beste batean guti, emaitzak ez dira berdinak izanen).

Azken erabaki- eta eragin-maila, maila xeheena, eskola jakin bateko erkidegoak osatzen du; eskola bakoitzeko erkidegoak ere (irakasleek eta beste langileek, gurasoek eta ikasleek), beren ezaugarri soziokulturalen eta jardunbidearen bidez, egoera soziolinguistiko eta hezkuntzazko jakin bat osatzen laguntzen du.

Laburtuta, erran dezakegu inguru soziolinguistiko jakin batzuetako ezaugarriek eta haien gainean hainbat mailatan harturiko erabaki eta ekimen sorta batek zehaztuko dutela hezkuntza-sistemaren egoera eta emaitza toki jakin bakoitzean. Hizkuntz politikarekin zerikusia duten hainbat mailatako ezaugarri, gertakari edo erabaki horien konbinaziotik ateratzen dira gaur egun ikus daitezkeen hizkuntza-egoera desberdin ugariak Euskal Herriko alde desberdinetan.

Lan honi dagokionez, beti dugu gogoan hezkuntza-sistema izan ohi dela edozein hizkuntz politikaren eremu oinarrikoetako bat, administrazioarekin eta komunikabideekin batean, besteak beste (Euskaltzaindia-Siadeco, 1977; Euskaltzaindia-Siadeco, 1979; Eusko Legebiltzarra, 1982; Eusko Jaurlaritza, 1983). Euskal Herriko administrazio-erkidegoetan indarrean jarriak diren hizkuntza-politika berrien ondorioz, azken urteotan hezkuntza elebidunaren eskaria nabari den gisan hazi da, bai euskara-espainola konbinazioa eta bai euskara-frantsesa ere<sup>4</sup>. Horrek balio izan du euskal hizkuntzaren garapena indartzeko, kalterik egin gabe gaztelania jakiteari edo frantsesa jakiteari, zein bere erreferentziako estatu-lurraldeetan<sup>5</sup>. Begien bistan eduki behar da ezen, espainiar eta frantziar estatuetan aktiboki edo pasiboki ezarritako hizkuntz politiken ondorioz, gaur egun (errateko) Hegoaldeko herritar guziek badakitela gaztelaniaz mintzatzen, eta Iparraldeko jende guziak badakiela frantsesez; ez da, ordea, hala gertatzen euskararen kasuan, biztanleen gutiengo batek besterik ez baitaki hizkuntza hori<sup>6</sup>.

Hurrengo lerrootan hizkuntza politika desberdinen oinarriko ezaugarri batzuk azalduko ditugu, eta, bestalde, hiru erkidego nagusi horietako hezkuntza-sistemak izanen ditugu hizpide, bereziki bilduko garelarik hezkuntza-ereduen eremuan, betiere euskarak haietan duen presentziaren ikuspuntutik.

<sup>4</sup> Hezkuntza elebidunaz ari garenean, hemen beti euskara da elebitasunaren alde bat; beraz, ez dugu aztertzen batera bestelako hezkuntza elebidunen eredurik, konparazio batera gaztelania-ingeles konbinazioa, edo holakorik.

<sup>5</sup> Gero erakutsiko ditugu datu batzuk baieztapen honen funtza frogatzeko.

<sup>6</sup> Datu zehatzen berri jakiteko, ikus [http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf) (kontsulta, 2014-07-25ean)

Erkidego bakoitzari dagokionez, erreferentzia gisa honako puntu hauek izanen ditugu: oinarritzko lege-arauak, hezkuntza-eredu bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak, eredu bakoitzaren eskarian izan den bilakaera eta emaitzen ebaluazioa, eta azkenik gogoeta egingen dugu nolako desafio berriak dituen aurrean euskal jendarteak bere hezkuntza-sistemaren bidez, hizkuntzen eremuan.

## 2. Euskara Euskal Herriko hezkuntza-sistema elebidunean

Hezkuntza edo ikas-irakaskuntza elebidunaren inguruan ñabardura batzuk egin daitezke. Iritzi zabalki onartu baten arabera, *hezkuntza elebidun* izena merezi izateko, bi hizkuntza erabili behar dira eskolan eta, gainera, hizkuntza bera ez den bestelako edukiak ikasteko (adib. Siguàn & Mackey, 1986; Serra & Vila, 2009). Horrela, ikuspuntu horren arabera hizkuntzaren beraren ikas-irakaskuntza soila (atzerriko hizkuntza gisa tratatuta, konparazio batera) ez litzateke aski eredu bati *hezkuntza elebidun* deitzeko. Beraz, A eredu delakoa ez litzateke hezkuntza elebiduntzat hartuko, eta D eredu ere ez<sup>7</sup>. Guk, dena dela, D eredu ez ezik EAEko A eredu ere aintzat hartuko dugu lan honetan, kontrasteak aztertzeko, eta beste arrazoi batengatik ere bai: helburuetan EAEko A ereduak ere, legalki, bermatu behar duelakoz ikasleak gaztelaniazko komunikazio-gaitasun maila bera lortu behar duela euskarari dagokionez ere. Hezkuntza elebidunaren ulerkera honi dagokionez, hona zer dioten Dolzek eta Idiazabalek (2013: 12): «Hablaremos de enseñanza bilingüe cuando el objetivo perseguido por dicha enseñanza es la capacitación de los estudiantes para el uso de más de una lengua». Irizpide horren arabera A eredu hezkuntza elebidunean sartuko litzateke EAEn, baina ez da ageri-agerikoa Nafarroako A eredu hezkuntza elebiduntzat har daitekeen toki guzietan bederen, zeren ez baita batere garbi zein den zehazki helburua hizkuntzaren erabilerari dagokionez. Guk, dena dela, hurrengo lerrootan aintzat hartuko ditugu euskararen presentzia baduten eredu guziaz, baita soilki *euskararen irakaskuntza* eskaintzen dutenak ere (*euskararen bidezko irakaskuntzaz* gainera, alegia).

<sup>7</sup> Dena dela, A eta B ereduak ez dira doi-doi simetrikoak: D eredu lantzen den gaztelania maila, oro har, hizkuntza gisa, ez da A eredu lantzen den euskara mailarekin konparatzeko modukoa.

Euskal Herria ikuspuntu politiko-administratibotik banatuta baldin bada ere (goian erran bezala), badira lurraldeen artean antz batzuk hezkuntza-sistemari dagokionez eta hartan euskarak duen presentziari doakionez.

Antz horietako bat da hezkuntza-sistemaren mailak eta etapak franko antzekoak direla hiru lurraldeetan. Ondoan datorren **1 taulak** erakusten du zer den antzekoa espainiar eta frantziar sistemen artean<sup>8</sup>.

**1 taula.** Hezkuntza ez-unibertsitarioko mailak estatu espainiarrean (EAE eta NFK) eta frantziarrean.

EAE eta NFK	Maila	Adina	Iparralde	Maila	Adina
<b>Ez nahitaezko</b>	Haur Hezkuntza	2-6 <sup>9</sup>	<b>Ez nahitaezko</b>	Ama-eskola/ Maternelle	2-6
<b>Nahitaezko</b>	Lehen Hezkuntza	6-12	<b>Nahitaezko</b>	Oinarrizkoa/ Élémentaire	6-11
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	12-16		Collège	11-15
<b>Ez nahitaezko</b>		16-18	<b>Ez nahitaezko</b>	Batxilergoa/ Baccalauréat	15-18

*Iturriak:* Nafarroako Gobernua, 2014b; Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014a; Ministère de l'éducation nationale, de l'enseignement supérieur et de la recherche, 2014a.

Hiru lurralde horietako bakoitzean badira hiru hezkuntza-sare: sare publikoa, pribatu konfesionala eta ikastolen sarea. Badira konfesionalak ez diren ikastetxe pribatu batzuk ere.

<sup>8</sup> Espainiar sistemaren barrenean dira EAE eta NFK, eta frantziar antolamenduari jarraiki egina da Iparraldeko sistema.

<sup>9</sup> Berez, Haur Hezkuntzan bi ziklo bereizten dira: lehenengoa, 0-3 urte; bigarrena, 3-6 urte.



Euskararen presentzia hezkuntza sisteman oinarritzko bi modutan agertzen da, kontuan harturik euskara zertarako erabiltzen den eskolajardunetan. Batzuetan curriculumeko ikasgai soil bat da (hizkuntza ikas-irakasgai huts gisa ulertzen da, atzerriko hizkuntzan ohikoa izan den trataera eskainiz), baina beste batzuetan eskolako edukia bideratzeko lanabes edo tresna da (hizkuntza ulerturik curriculumeko beste eduki batzuen ikas-irakasbide gisa). Bestela errateko, hitz egin dezakegu *euskararen ikas-irakaskuntzaz* eta *euskarazko* (edo *euskararen bidezko*) *ikas-irakaskuntzaz*. Bi ikas-irakasbide horiek agertzen dira euskal lurraldeak diren hiru erkidegoetan, hezkuntza-sisteman baliatzen diren hizkuntza-ereduen bidez. Ondoko **2 taulak** erakusten du zer antz diren euskararen trataerari dagokionez hezkuntza-sisteman erkidego bakoitzean (taulan ikus daitezkeen ikasleen datuak 2010/2011 ikasturtekoak dira; Hegoaldekoak Haur eta Lehen Hezkuntzakoak dira, eta Iparraldekoak *premier degré*-koak).

**2 taula.** Antzak hezkuntza ereduetan euskarari dagokionez, Euskal Herriaren hiru erkidego politiko-administratiboetan. Ikasleen datuak 2010-2011 ikasturtekoak dira.

	Euskararen ikas-irakaskuntza	Euskararen bidezko irakaskuntza	
		Ikas-irakaskuntza bi hizkuntzatan	Ikas-irakaskuntza euskaraz
<b>Iparraldea</b>	«Sensibilisation» / Lehen irakaskuntza. Ikasleak: 995	«Parité horaire» / Oren parekotasuna. Ikasleak: 6.608	«Immersion»/ Murgiltze. Ikasleak: 1.940
<b>NFK</b>	A eredia. Ikasleak: 13.564	B eredia. Ikasleak: 161	D eredia. Ikasleak: 15.690
<b>EAE</b>	A eredia. Ikasleak: 12.828	B eredia. Ikasleak: 54.403	D eredia. Ikasleak: 142.714

*Iturriak:* Académie Bordeaux, 2010; EEP-OPLB, 2005; Nafarroako Gobernuak, 2014a; EUSTAT, 2014.

## 2.1. Hezkuntza elebiduna euskara-frantsesa Iparraldean

### 2.1.1. Lege-euskarriak

Espainiako estatuko bi euskal erkidegoetan ez bezala, euskarak ez du gaur egun hizkuntza ofizialaren kategoria edo estatusa estatu frantziarraren legegian. Frantziako estatuak sinatua du Europako Erregio edo Gut(x)iengoan Hizkuntzen Europako Gutuna, baina ez ditu bete baldintzak hura indarrean jartzeko<sup>10</sup>. XX. mendeko 50eko hamarkadan Hegoaldean hasiriko mugimendua erreferentzia gisa harturik, Iparraldean lehen ikastola 1969an sortu zen<sup>11</sup>, eta hartarako eragileek irabazi-asmorik gabeko elkarte bat eratu zuten, Frantziako 1901eko lege baten gerizpean (Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia, 2010). 1969. urtean berean frantziar administrazioak 3 irakasle ibiltari jarri zituen euskara hezkuntza-sisteman irakasteko (Aldasoro, 2001). Hainbat gorabeheraren ondotik, azken aldi honetan ikastolen eta oro har hezkuntza elebidun osoaren egoerak hobera egin du zenbapait ere, besteak beste Hegoaldeko mugimenduaren ondorioz edo hari lotuta (Harguindéguy & Itçaina, 2012). 2004an sortu zen Euskararen Erakunde Publikoa, Interes Publikoko Elkarte bezala, akordioa lortu ondoren hainbat instituzioren artean, hala estatu-mailakoak, nola eskualde-mailakoak, departamendu-mailakoak eta tokiko administrazioakoak (EEP-OPLB, 2014).

Hiru sarek osatzen dute Ipar Euskal Herriko hezkuntza sistema: sare publikoak, irakaskuntza giristinoak edo konfesionalak, eta ikastolen sareak (azken hauek SEASKA erakundearen barrenean bilduak). Hiru modutan tratatzen da euskal hizkuntza<sup>12</sup>:

- a) sentsibilizazio gisa («Lehen Irakaskuntza» izena eman diote euskaraz Lehen Hezkuntzan, eta «opzio» Bigarren Hezkuntzan), astean ordu

<sup>10</sup> Estatu kideak zein diren kontsulta daiteke hemen: Council of Europe, 2014.

<sup>11</sup> Lehenengo ekimena 1964koa da. Zertzelada historiko, pedagogiko eta antolamenduzkoak ikasteko, ikus: <http://www.seaska.net/web/default.php>; eta orobat Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia, 2010.

<sup>12</sup> Xehetasunak kontsultatzeko, EEP-OPLB (2005). In: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E\\_diagnostikoa\\_2004\\_2005.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E_diagnostikoa_2004_2005.pdf) (2014-07-15ean ikusia).

batetik hiru ordura arteko denbora eskainita, eta hartan euskararen hatsarreak ematen direla; heziketa modu hau batez ere sare publikoan erabiltzen da;

- b) hezkuntza elebidun gisa, euskara-frantsesa, oren-parekotasunaren arabera antolaturik bi hizkuntzak; Lehen Hezkuntzan bi hizkuntzak erabiltzen dira irakasbide gisa, eta Bigarren Hezkuntzan, berriz, euskara ikasgai gisa irakasten segitzen da, eta curriculumeko gai bat edo bi euskaraz ematen dira; antolamendu hau sare publikoan eta sare pribatu konfesionalean eskaintzen da;
- c) euskarako murgiltze-programa gisa, SEASKA sareak garatua, non euskara den curriculumeko eduki guziak bideratzeko hizkuntza eta frantsesa hartzen den eskola-curriculumeko ikasgai gisa (EEP-OPBL, 2005; Académie Bordeaux, 2010)<sup>13</sup>.

### 2.1.2. Matrikulazioaren bilakaera Iparraldean

«Sentsibilizazio» edo «Lehen Irakaskuntza»ko matrikulatuen kopurua 1400era iritsi zen 2004/2005 ikasturtean, baina hortik aitzinera jaitsi zen poliki-poliki azkenean 995eko kopurura 2010/2011 ikasturtean. Azken urteotan antolabide honetako matrikulazioen beharrezko konpentsatzen da oren-parekotasunezko sistemaren eskariaren handitzearekin, sare publikoaren eta pribatu konfesionalaren bidez. **3 taulan** erakusten da nolako bilakaera izan duen matrikulazioak oren-parekotasuneko hezkuntza elebidunean eta murgiltze programetan «Prémier Degré»-ko mailetan.

---

<sup>13</sup> Badira saioak sare publikoan ere murgiltze-programak garatzeko, oraindik esperimentazio fasean; jendartearen bada hartarako zenbapaiteko eskaria, baina Frantziako administrazioaren hizkuntza-politikak ez du euskararen erabilera eta hazkundera errazten.

**3. taula.** Hezkuntza elebiduneko matrikulazioaren bilakaera orenparekotasunean eta murgiltze programetan.

Ikasturtea	2001 /02	2002 /03	2003 /04	2004 /05	2005 /06	2006 /07	2007 /08	2008 /09	2009 /10	2010 /11	2011 /12	2012 /13	2013 /14
Ikasleak orenparekotasuna	3725	3955	4335	4587	4809	5251	5621	5940	6203	6504	6713	6912	7061
Ikasleak murgiltze prog.	1385	1418	1450	1386	1404	1462	1524	1641	1771	1878	2015	2095	2175

*Iturria:* Académie Bordeaux, 2010 (2003/2004 ikasturte arteko datuak) eta EEP-OPLB, 2013 (2004/2005 urtetik hasita).

Bi hizkuntzen bidezko irakaskuntza (*oren parekotasuna* gehi euskarazko *murgiltzea* batera harturik) goranzko joeran ari da Iparraldean, eta hala, euskara gero eta gehiago erabiltzen da irakasbide gisa. 2004/2005 ikasturte-tik 2013/2014 ikasturterako tartean igan egin zen lehen mailako ikastetxe elebidunen kopurua (11 urte bitarteko ikasleak), 108tik 147ra<sup>14</sup>; hau da, 2004/2005 ikasturtean %42 baldin bazen horrelako ikastetxeen ehunekoa, gaur egun %60ra iritsi da (hiru sareetako ikastetxeak kontatuta). Hezkuntza ez-elebidunaren aldean, hezkuntza elebiduna jaso zuen ikasleen kopurua ere nabari den gisan handitu da, hala zenbaki absolutuetan nola ehunekoe-tan: 2004/2005ean %24,7 zen kopurua eta 2013/2014n iritsia zen %36,6ra. Datu horiek **4 taulan** ikus daitezke (EEP-OPLB, 2013)<sup>15</sup>.

<sup>14</sup> Kontuan hartu behar da hainbat ikastetxetan hezkuntza eredu desberdinak eskaintzen direla, hala elebidunak nola frantseseko elebakarrak, eta ikastetxe horiek denak ikastetxe elebidunen multzoan sartzen dira.

<sup>15</sup> Lehenagoko datuak kontsulta daitezke hemen: Stuijt & Sánchez, 2008.

**4 taula.** Hezkuntza elebiduna eta ez-elebiduna eskaintzen duten ikastetxeen eta ikasleen kopuruen bilakaera (2004-2013).

	2004/05		2006/07		2008/09		2010/11		2012/13		2013/14	
	Eleb.	Ez eleb.	Eleb.	Ez eleb.	Eleb.	Ez eleb.	Eleb.	Ez eleb.	Eleb.	Ez eleb.	Eleb.	Ez eleb.
Ikastetxe kopurua	108 (%42)	147 (%58)	120 (%47)	136 (%53)	132 (%51)	125 (%49)	146 (%58)	111 (%42)	150 (%60)	101 (%40)	147 (%60)	100 (%40)
Ikasle kopurua	5973 (%24,7)	18256 (%75,3)	6713 (%27,6)	17628 (%72,4)	7581 (%31)	16971 (%69)	8382 (%33,9)	16311 (%66,1)	9007 (%35,9)	16116 (%64,1)	9250 (%36,6)	16016 (%63,4)

*Iturria:* EEP-OPLB, 2013.

### 2.1.3. Sistemaren emaitzak Iparraldean

Nazioarteko ebaluazio saioetan Frantziako estatuko emaitzak, oro har, hobekiaz izaten dira Espainiako estatuarenak baino. Adibidez, PISA delako ebaluazio programaren 2009ko saioan, irakurmenari dagokionez, Frantziak 496 puntuko batez bestekoa erdietsi zuen (Espainiak 481; EAEk 494; NFK-k 497). Orain arteko azken saioan, 2012an, 505 puntuko izan zuen Frantziak batez bestekoa (Espainiak 488; EAEk 498; NFK-k 509). Hala ere, ez da egiten horrelako neurketarik euskarazko gaitasunari dagokionez, eta beraz ez dugu aurkitu maila horretan datu berezirik ikasteko zer emaitza dituen Iparraldeko sistemak euskararen eta elebitasunaren ikuspuntutik.

Badira beste maila bateko ebaluazio saioak, Frantziako Hezkuntza Ministerioak eginak. Ebaluazio horiek CE1 eta CM2 izeneko mailetan egin izan dira (ikasleek 7-8 urte, eta 10-11 urte, hurrenez hurren). Aipatzekoa da, halere, aldaketa giroa dagoela ebaluazioaren alor horretan ere. Hori kontuan izanik, nabarmentzekoak iduri dute ondoan agertzen ditugun datuok, CM2 mailari dagokionak.

2011ko urtarrilean eginiko ebaluazioan, frantses hizkuntzari dagokionez, aipatzekoa da CM2 mailan (Frantziako sisteman Lehen Hezkuntza-ko azken ikasturtea, ikasleek 10-11 urte) Frantzia osoko datuak baino

hobeak direla Bordeleko Akademiakoak (horren zatia da Pyrénées-Atlantiques izeneko lurraldea); eta Pirinio Atlantikoetakoak, berriz, hobeak dira Bordeleko Akademiaren meneko lurralde guzikoak baino. Ebaluazio horretan 4 taldetan sailkatzen dira ikasleak: 1, aski den dinako gaitasuna lortu ez dutenak; 2, gaitasuna oraindik ahulki lortu dutenak; 3, gaitasuna ongi lortu dutenak; eta 4, gaitasuna oso sendo lortu dutenak. Lehenbiziko bi multzoetan Frantzia osoan ikasleen %26 gelditu zen, Bordeleko Akademiaren eremu osoan ikasleen %22, eta Pirinio Atlantikoetan %18; beste aldetik, Frantzia osoan, gaitasuna sendo lortu zutenak ikasleen %43 izan ziren, Bordelen meneko guzian ikasleen %47, eta Pirinio Atlantikoetan ikasleen %52 (Ministère de l'éducation nationale, de l'enseignement supérieur et de la recherche, 2014b). Ez daiteke erran euskal lurraldeetan erdietsiriko emaitza hobe horiek ikasleriaren elebitasunari egotzen ahal zaizkionik, baina alderantziz ere, ezin da haien araberargudiatu hezkuntza elebidunak kalterik ekarri dienik frantses hizkuntzako emaitzei.

Euskarazko gaitasunari dagokionez, berriz, ebaluazioak hasierako pausoe-tan dira, urria baita hartarako laguntza, bilduriko datuak ez-osoak, eta haien interpretazioa zalantzazkoa. Testuinguruaren muga horiek gogoan edukirik, 2012/13 ikasturteko datu batzuek erakusten dute irakaskuntza publiko eta pribatu elebidunean<sup>16</sup> Europako Erreferentzia Markoko A2 mailako azterketan CM2ko (10-11 urteko) ikasleek batez beste 12,6ko puntuazioa eskuratu zutela, iritsi zitekeen goienekoa 20 izanik (batez ere irakurmena eta idazmena aztertu ziren). Aitzineko urteko ebaluazio baten emaitzak ere antzekoak dira (2011/12 ikasturtea): CM2ko ikasleen batez besteko puntuazioa 12,8 izan zen, erdietsi zitekeen emaitzarik hoberena 20 izanik (EEP-OPLBk emaniko datuak).

Labur erran liteke euskarazko gaitasunari dagozkion ebaluazio saioak oraindik hastapenetan direla Iparraldean eta ez direla ongi asentatuak eta baldintzak ongi bermatuak, besteak beste administrazioak ere ez baitu, izan ere, interes handirik jartzen afera honetan.

<sup>16</sup> SEASKAko ikastetxeek ez da horretan daturik bildu.

## 2.2. Hezkuntza elebiduna euskara-gaztelania estatu espainiarrean

1978an onarturiko Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua ezartzen du gaztelania dela Estatuaren hizkuntza ofiziala eta gainerako «espainiar» hizkuntzak ere ofizialak izanen direla zein bere Autonomia Erkidegoan. Orobat adierazten du konstituzioak espainol guziek dutela gaztelania jakin beharra eta hura erabiltzeko eskubidea. Artikulu horren arabera garatzen dira EAEn eta NFKn legediak, mugatzeko eta zehazteko hala hizkuntza-politikak bere osotasunean nola hezkuntzaren esparruan bereziki. Ondoko lerroetan esparru horretako hainbat alderdiz ariko gara, bai EAEn dagokionez eta bai NFKri ere.

### 2.2.1. Nafarroako Foru Komunitatea (NFK)

#### 2.2.1.1. Lege-euskarriak

1982an onartu zen *Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa* delakoa<sup>17</sup>, eta hark ezartzen du, 9. artikuluan, ezen gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta segidan adierazten du euskarak ere hizkuntza ofizialaren izaera izanen duela Nafarroako eremu euskaldunetan (Jefatura del Estado Español, 1982).

1986ko abenduaren 15eko Euskararen Foru Legeak 2. artikuluan jotzen ditu gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzat eta aitortzen die, ondorioz, nafar herritar guzietan, eskubidea haiek jakiteko eta erabiltzeko. Artikulu horretan zehazten da gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala eta euskara ere hala dela, baina lurraldeen araberrako muga batzuen arabera (euskarari erreferentzia egiteko, «vascuence» hitza erabiltzen da). Bosgarren artikuluan ezartzen da Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatua dagoela<sup>18</sup>:

- a) eremu euskalduna, 63 udalerrik osatua (NFKren populazioaren %9,3 zegoen alderdi horietan 2011ko zentsuaren arabera);

<sup>17</sup> Testua hemen ikus daiteke: <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=87>

<sup>18</sup> Ikus bibliografia: Nafarroako Gobernua, 1986.

- b) eremu misto edo bitariko bat, non 52 udalerrri sartzen diren, haien artean delarik Iruñea-Pamplona (biztanle guzaien %54,5 bizi da eremu horretan);
- c) eremu ez-euskalduntzat jotzen dena, Nafarroa Garaiko gainerako udalerrriak biltzen dituen (Nafarroako biztanleriaren %36,2 zen hor 2011ko erroldaren arabera)<sup>19</sup>. Eremu horiek bereizteko erabili zen irizpidea izan zen toki bakoitzeko euskaldunen kopurua: eremu euskaldunetan sartzeko, biztanleen %10ak behar zuen euskalduna, eta bitariko eremuan jartzeko baldintza zen euskaldunen ehunekoak izan behar zuela gutienez %5 (Azkarate, 2012).

Beharbada lege horren ezaugarriak nabariena da nafar herritarren hizkuntza eskubideak eratzen eta mugatzen dituela beren jarduneko hizkuntza-eremuaren arabera. Horixe da ezaugarriak bereziena, kontraste handiena egiten duena EAEko hizkuntza-politikaren aldean, azken honetan pertsonak berak baitu eskubidea (Nafarroan, aldiz, lurraldetasun irizpidea aplikatzen da eta eskualdearen arabera pertsonak eskubide desberdinak ditu hizkuntzen alorrean).

Hezkuntza sistemari dagokionez, berriz, lege horrek ezartzen du herritar guziek badutela eskubidea hezkuntza jasotzeko bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere, irakasmila desberdinetan. Baina... hurrengo kapituluetan desberdintasunak ezartzen dira eremuaren arabera. Eremu euskaldunetan ezartzen da ikasleak hezkuntza jasoko duela hautatzen den hizkuntzan, eta beharrezkoa izanen dela euskara eta gaztelania biak irakastea, halako moldez non ikaslearen oinarrizko eskolatzearen amaieran ikasleak frogatu behar duen nahikoa den gaitasun maila bi hizkuntzetan (gaztelaniaz, «capacitación» hitza erabiltzen da). Eremu mistoan edo bitarikoan, ordea, euskara irakatsiko zaie hala nahi duten ikasleei, halako moldez non eskolatzearen amaieran erdietsi ahal izanen duten hizkuntzaren ezagutza maila nahikoa (gaztelaniaz, «conocimiento» hitza erabiltzen da). Azkenik, eremu ez-euskaldunetan, euskararen irakaskuntza bultzatuko dela erraten da, eta, bere kasuan, osorik edo zati

<sup>19</sup> Iturria: Gobierno de España. Instituto Nacional de Estadística (2014). *Censo de 2011*. Internet, in: <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do?path=/t20/e244/avance/p02/10/&file=1mun31.px&type=pc-axis&L=0>



batean botere publikoek finantzatua izanen dela, irizpidea delarik hura sustatzea eta bultzatzea, eskariaren arabera. Alderdi «ez-euskaldun» horretan ez da aipatu ere giten «euskaraz irakasteko» posibilitatea.

Geroago, beste foru-dekretu batek (Nafarroako Gobernua, 1988) arautu zuen euskararen sartzeta eta erabiltzea Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan. Dekretu horrek modu banatuan hartzen ditu hiru zona soziolinguistikoak, erkidegoa hala partitua baita. Legeak bereizten ditu «euskara irakastea» eta «euskaraz irakastea» («enseñanza de euskara» eta «enseñanza en euskara»), eta hartan ezartzen da zein izanen diren hezkuntza-eredu desberdinen oinarrizko ezaugarriak lurraldeko hizkuntzei dagokienez. Dekretuak ez du aintzat hartzen eremu ez-euskaldunean «euskaraz irakasteko» aukera, horrela adierazirik ezinezkoa dela hautu hori praktikan. Dena dela, murriztapen horrek ez du zehazki erran nahi gaur egun alderdi horretan euskarazko ikas-irakaskuntza ez dela gauzatzen. Izan ere, adibidez, 2012/2013 ikasturtean baziren 6 ikastola eremu horretan, eta hartan ari ziren mila ikasle baino gehiago, Haur Hezkuntzatik hasi eta Nahitaezko Bigarren Hezkuntza barrenean hartuta (1.107 ikasle ziren, zehazki)<sup>20</sup>.

Ereduei dagokienez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailetarako, hiru eredu ezarri ziren, euskararen presentzia badutenak. EAEko ereduari jarraiki A, B eta D ereduak.

A ereduan irakaskuntza gaztelaniaren bidez giten da eta euskara hartzen da curriculumeko eduki baten gisan. Eskola ordutegitik %15 inguru eskaintzen zaio euskarari, bai Haur Hezkuntzan eta bai Lehen Hezkuntzan.

B eredia bere hasierako formulazioan lurralde euskaldunerako diseinatua zen. Eredu horretan irakasbidea euskara da eta gaztelania pixkanaka sartzekoa zen, goragoko ikasmailetan. Eredu horrek ez du bizkortasunik erdietsi eta gaur egun iduri du ia desagertzeko dela (gero erakutsiko dira datu batzuk).

D ereduan, berriz, irakaslan dena euskaraz da, gaztelania eta atzerriko hizkuntzako ikasgaiak kenduta.

<sup>20</sup> Nafarroako Ikastolen Elkartek emaniko datuak (2013ko abenduan).

Gainera, Nafarroaren kasuan bada G eredua deitzen dena ere, euskararen presentziarik batere gabekoa eskola-curriculumean. Eredu horrek matrikulazio kopuru handia izaten du, EAEn ez bezala.

Gaur egun, hizkuntz politika horren guziaren buruan, eredu hauek dira baimenduak alde bakoitzean, sare publikoan: eremu euskaldunean, A, B eta D; eremu bitarikoan, A, B, D eta G; eremu ez-euskaldunean, A eta G<sup>21</sup>.

Aipatzekoa da 2006/2007 ikasturtetik hasita badirela eredu horien aldea edo bariante eleaniztun batzuk, funtsean ingelesaren presentzia indartuta dutenak: *British*, TIL-A, TIL-D<sup>22</sup>.

Egungo Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan (12-16 bitarteko ikasleak) badira hiru eredu aukeran: G, A eta D. Eredu horien ezaugarriak beren izen bereko Haur eta Lehen Hezkuntzako ereduaren antzekoak dira.

Orain arte azalduko zen egoera 2014ko urria arte, ia 30 urtez iraun duena bere hala. Baina 2014ko urrian aldaketa garrantzitsu bati atea ireki zitzaion: Nafarroa Garaiko indar politikoen gehiengo batek adierazi zuen iritzia euskararen legea aldatu behar zela, eta irakaskuntzaren esparruan aukera izanen zela euskaraz ere ikas-irakasteko sare publikoan. Erkidegoaren orduko agintaritzatik adierazi zen horrek arazoak sortuko zizkiola sistemari, «eredu egonkor eta adostasunezkoa nahasi» egingen zela, bestelakotu nahi zela Nafarroaren errealitate instituzionala, eta euskararen legea «estatu legea» zela<sup>23</sup>. Erantzunaren zorrotzak erakusten du zenbateko garrantzia

<sup>21</sup> Ereduen hasierako formulazioaz jakiteko, ikus bedi Nafarroako Gobernua, 1988. Interneten, in: <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28807>; gaur egungo eskaintzaz ikasteko, berriaz, ikus Nafarroako Gobernua, 2014c. In: <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/modelos-linguisticos>.

<sup>22</sup> TIL: *Tratamiento Integrado de Lenguas* (euskaraz, HTB: Hizkuntzen Trataera Bateratua). Funtsean, TIL izeneko eredu-aldaerak hau dira: oinarriko ereduetatik abiatuta (D, A, G), ingelesaren presentzia handiagoko aldaerak, barne harturik CLIL-HEBI eta TIL-HTB bezalako jardunbide metodologikoak. Informazio gehiagorako, ikus Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako: <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/programas-de-aprendizaje-de-ingles-infantil-y-primaria>; Bigarren Hezkuntzarako: <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/secciones-bilingues> (kontsulta, 2014-06-16an).

<sup>23</sup> *Berría*, 2014-10-22, 8. or.

eman izan zaion euskararen legearen balio estrategikoari. Nafarroako Legebiltzarrak 2015eko otsailaren 19an egin zuen lege berriaren aldeko bozka.

### 2.2.1.2. Matrikulazioaren bilakaera NFKn

Nafar jendarteak euskararen eta euskarazko irakaskuntzari egin dion harra ikus daiteke azken urteotako matrikulazio datuetan (ikus Nafarroako Gobernua, 2014a; Consejo Escolar de Navarra, 2013). Azken hamarrurtekoan eredu matrikulazioan izan den bilakaera ikus daiteke **5 taulan**, non datu absolutuak eta ehunekoak agertzen diren, bi multzotan bilduta, ikasleen elebitasuna lortzeko erakutsi duten gaitasunaren arabera: batetik A eta G ereduak, eta bestetik B eta D ereduak. Aipatzekoak dira, batetik, urteen joanean ageri den aldaketa txikia ehunekoetan (ikus 29. oharra, 2012/2013ko datuez), eta horrekin batera, matrikularen igoera txiki bat nabaritu izan dela euskararen presentzia adierazgarriko ereduetan (praktikan, D eredu).

Honako ezaugarri hauek kontuan hartzekoak dira:

- a) ikasleen erdiak baino gehiago G eredu matrikulatuak dira (euskararik batere gabe), nahiz eta gehiago hori pixka bat ttitu den: 2000. urtean %61 zen, baina 2011/2012an %59n zen<sup>24</sup>, eta 2012/2013an %55<sup>25</sup>;
- b) A ereduko matrikulazioan aldaketa txikia da, eta beheiti bidean doa pixkanaka: 2000n %18 zen eta 2011/2012an %17 da<sup>26</sup>; aldaketa han-

<sup>24</sup> Datu hauek ateratzeko, 2011/2012 ikasturtean, G eredu arruntari gehitu egin dizkiogu beste hauek ere: *British* eta *TIL* izenez ezagunak (*TIL: Tratamiento Integrado de Lenguas*).

<sup>25</sup> Azken urte honetako datuetan G eredu ez dira sartzen ingeles indartuko ereduak (Consejo Escolar de Navarra, 2013).

<sup>26</sup> *TIL-A* eredu eta *BR-A* eredu ere An sartzen ditugu. Aipatzekoa da orobat A eredu gertatzen den matrikulazio kopurua: EAEko esperientziaren arabera nahikoa argi dago A ereduak ingurune ez-euskaldunean ez duela lortzen ikaslea elebidun bihurtzea, baina Nafarroan eredu horretako matrikulazioak badu alde sinboliko aintzat hartzeko bat: euskal hizkuntzarekiko begirunea erakusten du, eta zenbapaiteko interesa. Horrek ere badu garrantzia, zenbatekoa baita ere, hizkuntzaren prestigioari eta estatusari dagokionez.

- dixeagoa da A eredu soil-soila hartzen bada, eredu eleaniztunak kontatu gabe: 2012/2013. urtean, ikasleen %14 ari zen A eredu soil-soilean;
- c) ingelesaren presentzia indartua duten programen onarpena bizkor hazten ari da, programa horiek 2006/2007an hasi zirenez geroztik: 2012/2013 ikasturtean, ikasmaila guziak kontuan hartuta, ikasleen %7tik goiti ari zen eredu horren aldaeretako batean; eta erran-nahi handiagoko datua: 2008/2009 ikasturtean Haur Hezkuntzan eredu eleaniztunetan %6,5 ari zen, eta 2012/2013an, berriz, %22ra igana zen kopuru hori;
- d) 2011/2012 ikasturtean A eta G ereduak batera hartuta (eta barrenean sarturik eredu horien bariante edo aldaera ingeles-indartuak) matrikulazio guziaren %76 hartzen zuten; 2012/2013 ikasturtean, berriz, A eta G eredu soilek %69 hartzen dute (ingeles-indarturiko ereduak orotara %7 baino gehiago biltzen dute). Nolanahi ere, A eta G ereduak gehiago handia dute, EAEan gertatzen den egoeratik oso desberdina baita<sup>27</sup>;
- e) B eta D ereduak, hau da, ikasleen gaitasun elebidun egokia lortzeko eraginkortasuna erakutsi duten ereduak, %24ko eskariari eusten diote 2012/2013 ikasturtean ere (kontuan hartzekoa da B ereduak 0,2 eskaria besterik ez duela biltzen)<sup>28</sup>.

<sup>27</sup> Ingelesaren presentzia indartuko ereduak, bakoitza bere erreferentziako oinarriko ereduarekin bildu ditugu (G, A edo D), 2011-2012. urtera bitartean. Ez ditugu erdietsi datu zehatz horiek 2012/13 ikasturteaz, eredu eleaniztun guziak (British, TIL, TIL-A eta TIL-D) batera biltzen baitira Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenean (Consejo Escolar de Navarra, 2013).

<sup>28</sup> Konparazioak egiteko erreferentzia erran-nahitsu bat: 2006ko inkesta soziolinguistikoaren araber, 16 urtetik gorako nafar populazioa bere burua identifikatzen duena elebidun gisa euskaraz eta gaztelaniaz, maila desberdinetan, populazio guziaren %11ren eta %18,8ren artean da (Eustat, 2010). Gaur egun, eskoletan euskaraz ikasten ari den ikasleen ehuneko handiagoa da jendartean elebidun den jendea baino.

**5 taula.** Ikasmaila ez-unibertsitarioko matrikulazioaren bilakaera, ereduak bilduta: G+A eta B+D.

	2000/ 2001	2002/ 2003	2004/ 2005	2006/ 2007	2008/ 2009	2009/ 2010	2010/ 2011	2011/ 2012	2012/ 2013 <sup>29</sup>
<b>G+A ereduak</b>	63.219 (%79)	64.531 (%78)	65.933 (%78)	66.483 (%77)	69.131 (%76)	71.747 (%76)	73.798 (%76)	75.508 (%76)	68.982 (%69)
<b>B+D ereduak</b>	16.465 (%21)	17.790 (%22)	18.695 (%22)	20.532 (%23)	22.154 (%24)	22.831 (%24)	23.173 (%24)	24.073 (%24)	24.097 (%24)

*Iturriak:* Nafarroako Gobernua, 2014a; Consejo Escolar de Navarra, 2013.

Aipatzekoa da B eta D ereduak eusten dietela beren portzentajeei, eta Gk eta Ak apur bat beheiti egiten dutela, eredu eleaniztunaren mesedetan.

Adierazgarriena da eredu eleaniztunek nabari den gisan egin dutela goiti: hasi eta sei urteren buruan Haur Hezkuntzako matrikulazioaren bosten bat baino gehixeago erdietsi du (%22). Nafarroako Eskola Kontseiluko datu-iturrietan eredu eleaniztun guziak multzo berean sartu dira 2012/13 ikasturtean, eta, beraz, ez dugu jakiterik izan zenbat ikasle matrikulatzen den eredu eleaniztunean baina oinarrian D ereduak izanik (TIL-D).

Hurrengo urteetan joera nolakoa izanen den antzemateko erakusle bat izan daiteke aztertzea Haur Hezkuntzan zer matrikulazio gertatzen den eredu bakoitzean, eta hori Lehen Hezkuntzako egoerarekin konparatzea. **6. taulan** ikus daitezke datu horiek<sup>30</sup>. Aipatzekoa da eredu eleaniztunek nola

<sup>29</sup> 2012/2013 ikasturteko datuetan kontuan hartu behar da eredu eleaniztunetan ikasleen %7 ari dela, eta hori ez dugula taulan sartu, ez baitugu daturik erdietsi jakiteko eredu eleaniztun horien oinarriko ereduak zein den (izan daiteke G, A, edo D –edo *British* delakoa–), nahiz eta gehienak G eta A ereduak bide diren (Consejo Escolar de Navarra, 2013: 242). Hala ere, 2011/12 ikasturtean TIL-D ereduak 302 ikasle ari ziren (Nafarroako Gobernua, 2014a).

<sup>30</sup> Nafarroako Eskola Kontseiluko datuetan (Consejo Escolar de Navarra, 2013: 241) eredu eleaniztun guziak (*British*, TIL, TIL-A eta TIL-D) multzo batean sartzen dira, bereizi gabe oinarrian zein eredu den. Euskararen ikuspuntutik garrantzitsua litzateke ikustea ea TIL-D ereduak zenbat ikasle ari diren.

egiten duten goiti, eta, bestalde, B eta D ereduak matrikulazio guziaren laurdena baino gehixeago hartzen dutela.

**6 taula.** HH eta LHko matrikulazioaren bilakaera, ereduak (2010-2013)

	G+A ereduak			D+B ereduak			Eredu eleaniztuna(k)		
	2010/11 ikast.	2011/12 ikast.	2012/13 ikast.	2010/11 ikast.	2011/12 ikast.	2012/13 ikast.	2010/11 ikast.	2011/12 ikast.	2012/13 ikast.
<b>HH</b>	11.666 (%59)	11.313 (%55,5)	10.648 (%52,3)	5.339 (%27)	5.339 (%26,2)	5.236 (%25,8)	2.774 (%14)	3.718 (%18,2)	4.477 (%22)
<b>LH</b>	27.295 (%70,4)	26.808 (%68,4)	26.134 (%66)	10.380 (%26,7)	10.645 (%27,2)	10.880 (%27,3)	1.151 (%3)	1.768 (%4,5)	2.638 (%4,5)

*Iturria:* Consejo Escolar de Navarra, 2013.

### 2.2.1.3 Sistemaren emaitzak NFKn

Nafarroako hezkuntza sistemak ebaluazio emaitza onak jaso ditu nazioarteko PISA txostenean. 2009ko ekitaldian komunikazio konpetentzian NFK-k 497 puntu lortu zituen, Espainiako batez besteko emaitzak baino aisa hobeak (Espainiaren batez besteko emaitza 481 puntukoa izan zen) (ISEL-IVEI, 2010).

2012ko saioan 509 puntuko batez bestekoa erdietsi da nafar erkidegoan; erreferentzia gisa kontuan hartzen ahal da ebaluazio horretan Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko herrialde guzien batez bestekoa 496 izan zela, Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoa 489, eta Espainiako estatuko batez bestekoa 488 (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2014). Nafarroan D ereduko ikasleek ere parte hartzen dute froga horretan eta kontuan harturik zenbat diren B eta D eruedetako ikasleak (ikasleen laurden bat, guti goiti-beheiti), ez da arrazoirik pentsatzeko haien elebitasunak kalterik egiten ahal dienik sistemaren emaitza orokorreki (ez behinik behin nabari den gisakorik).

Horietaz gainera, beste ebaluazio batzuk ere egin dira NFKn. Espainiako estatuan 2006ko LOE delakoak<sup>31</sup>, bere 21, 29 eta 144 artikuluetan, ezarri zuten ebaluazio diagnostikoak egin behar zirela urtero. Horrela, Espainiako estatuan 2009an egin zen Ebaluazio Diagnostiko Orokorra (*Evaluación General de Diagnóstico*, gaztelaniaz) eta hartan, hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian Nafarroak 528 puntuko batez bestekoa erdietsi zuen (Espainia osoko batez bestekoa 500 puntutan finkatu zen)<sup>32</sup>.

Geroztik NFKn ebaluazio horiek egiten dira, bai LHko 4. mailako ikasleekin eta bai DBHko 2. mailakoekin. Emaizak Nafarroako Eskola Kontseiluak argitaratu ohi ditu. Hurrengo lerroetan, emaitza guzien erreferentzia gisa, DBH-2ko datuak besterik ez ditugu erakutsiko, eta irakurmenari dagokion emaitzak besterik ez<sup>33</sup>.

Aipatzekoa da, orobat, ebaluazio horietan badirela desberdintasunak parametro batzuetan erkidegoen artean, bai ebaluatzen diren dimentsioei dagokionez eta bai ikasleen emaitzak nolako tartetan edo multzotan sailkatzen diren, besteak beste. Ikasleen emaitzak taldetan sailkatzeari dagokionez, EAEn hiru tartetan edo mailatan biltzen dira (hasierakoa, erdikoa eta aurreratua); NFKn, berriz, lau maila bereizten dira (1, 2, 3 eta 3+). Nafarroan, txostenaren egileek adierazten dute lehenbiziko bi mailatan gelditzen diren ikasleek ez dutela lortua kompetentzia horretan erdietsi beharreko maila (Consejo Escolar de Navarra, 2013: 288 eta hurr.). Horregatik, datuak konparatzeko orduan iduri du NFK-ko lehen bi mailak EAEko «hasierako maila»rekin pareka daitezkeela, eta hala eginen ditugu guk hemen: lehen bi maila horietan direnak biak batera bildu ditugu **7 taulan**; hortaz, 3. mailakoek eta 3+ mailakoek dute gaitasun maila beren adinerako ongi edo hagitx ongi garatua.

Bestalde, kontuan hartzekoa da eredu guzietako ikasleek egiten dutela gaztelaniazko ebaluazioa, baina Nafarroan euskararen kasuan B eta D ere-

<sup>31</sup> In: <http://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf> (kontsulta, 2014ko ekainean).

<sup>32</sup> In Consejo Escolar de Navarra, 2010: 254.

<sup>33</sup> Bestelako datuen berri zehatza jakin nahi izanez gero, ikus hemen: Consejo Escolar de Navarra 2010, 2011, 2012 eta 2013.

duetako ikasleak bakarrik sartzen direla azterketan, hau da, euskara irakasbide den kasuak (EAEn A eredukoak ere ebaluatzen dira, euskara ikas-irakasgai huts gisa dutenak).

**7 taula.** Ikasleen ehunekoak mailaka hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean euskaran eta gaztelanian (2010-2013 urteak).

NFK. Ebaluazio diagnostikoak: DBH 2. maila	Ebaluazio diagnostikoak: euskara Irakurriaren ulermena			Ebaluazio diagnostikoak: gaztelania Irakurriaren ulermena		
	1. eta 2. mailak	3. maila	3.+ maila	1. eta 2. mailak	3. maila	3.+ maila
Urtea: 2010/11	%27,7	%61,5	%10,8	%26,1	%61,8	%12,1
Urtea: 2011/12	%28,3	%62,8	%8,9	%23,5	%62,9	%13,6
Urtea: 2012/13	%26,9	%60,5	%12,6	%27,6	%60,4	%12

*Iturria:* Consejo Escolar de Navarra, 2011, 2012 eta 2013.

Hiru urtetako ebaluazioen emaitzak erakusten dira **7 taulan**, irakurmenari dagokionez. Nabaritzekoa da, oro har, aski antzeko emaitzak ageri direla bi hizkuntzetan, bai euskararen eta bai erdararen kasuan: irakurmenaren dimentsioa bere adinerako ongi garatua dute ikasleen %70 baino gehixeagok, eta %30etik beheiti dira gaitasun hori aski hazia ez dutenak.

## 2.2.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE)

### 2.2.2.1. Lege-euskarriak

Euskal Herriko lurralde guzien artean EAeko erkidegoa da euskararen defentsan eta sustapenean jardunbide indartsuena garatu duena. Jendar-tean oso pertsona-portzentaje txikiak erabiltzen zuen hizkuntza gutituko egoeratik abiatuta, 1980 inguruan ezarri zen hizkuntza politikak hartzen du helburu gisa hiru probintzietako biztanle guziei eskaintzea euskara ezagutzeko eta jakiteko aukera, hargatik baina gaztelaniaren galerarik gabe, denek



segitzen baitute hizkuntza hori ikasten eta jakiten (ikus, adibidez, Baztarri-ka, 2009; Zalbide, 2010; Eusko Jaurlaritzak, 2013).

Euskadiko Autonomia Estatutuak 1979an ezartzen du 6. artikuluan ezen euskarak (Euskal Herriko berezko hizkuntzak) izanen duela, gaztelaniak bezala, hizkuntza ofizialaren izaera Euskadiko Autonomia Erkidegoan, eta biztanle guziek dutela bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Orobat adierazten da araudiak eta bitartekoak ezarriko direla euskararen jakitea ziurtatzeko (Jefatura del Estado Español, 1979).

Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legeak ezartzen ditu 1982n oinarriak euskara garatu ahal izateko hezkuntzaren eremuan, besteak beste. Lege horren bigarren kapituluan aitortzen zaio EAEko lurralde guzietako ikasleria guziri baduela eskubidea irakaskuntza euskaraz jasotzeko, eta horrekin batean arautzen da nahitaezkoa dela irakastea hautatu ez den hizkuntza ofiziala. Hamazazpigarren kapituluan, berriz, ezartzen da Jaurlaritzak hartuko dituela behar diren neurriak ikasleriari bermatzeko hizkuntza ofizial bien jakintza praktikoa nahitaezko ikasketen amaieran (Eusko Legebiltzarra, 1982).

Aurretik egin ziren lan eta bertsiok batzuen ondotik (Zalbide, 2010), 1983ko uztailan Eusko Jaurlaritzak jaulki zuen dekretu bat non ezartzen ziren hizkuntza ereduak, haien bidez erdiets zitezkeen hezkuntza sistemari jar-zen zitzaizkion helmugak. Aintzat harturik nolako ugaritasun soziolinguistikoa ageri zen erkidegoaren lurralde eta toki desberdinetan, eta gaiaren aurrean izan litezkeen sentiberatasun desberdinak<sup>34</sup>, oinarrizko hezkuntzan hiru eredu ezarri ziren, denetan ere agertzen zirelarik bi hizkuntza ofizialak: A, B eta D (Eusko Jaurlaritzak, 1983). Gainera, zenbait arrazoiren bidez euskararik gabe salbuetsiriko ikasleriak X eredu osatzen du<sup>35</sup>.

Jakina denez, A ereduan ikasgai guzikiak –euskara izan ezik– gaztelaniaz irakasten dira. Euskara ikasgai arrunt bat da, eta astean 4 bat ordu eskaini

<sup>34</sup> Frankismoaren garaian ez zen erraza populazioaren iritzia jakitea edozein gairi buruz. Diktadurak hori du.

<sup>35</sup> «X eredu» izenekoa ez zen zehazki formulatu.

ohi zaizkio. Ikasleek euskara maila nahikoa lortuz gero, beste ikasgairen bat ere euskaraz (euskararen bidez) eman daiteke, ahal izanez gero.

B ereduan gaztelania eta euskara, biak erabiltzen dira beste ikasgaiak ikas-irakasteko. Hasierako formulazioan ezarria zen gaztelania erabiliko zela ikasgai zentralak emateko, hala nola irakurketa, idazketa eta matematikarako, baina errealitatean B ereduak gauzatze konkretu praktiko desberdinak izan ditu.

D ereduari buruzko formulazio legalak ezartzen du ikasgai guziak –gaztelania izan ezik– funtsean euskaraz irakatsiko direla. Gaztelaniari 4 bat ordu eskaintzen zaizkio astean (Eusko Jaurlaritza, 2010)<sup>36</sup>.

Nahitaezkoa ez den Bigarren Hezkuntzan ereduak bitara biltzen dira, A eta D, eta haien ezaugarriak funtsean beste ikasmaita txikiagokoetako ereduaren ezaugarri berak dira. Ikasmaita horietan legalki ez da B eredurik (non bi hizkuntzak ikas-irakasbide gisa erabiltzen diren), baina praktikan bada aukera A ereduaren euskararen aldetik indartzeko, hartarako ikasgairen bat euskaraz eman.

Kontuan harturik zer helburu nahi dituen hezkuntza elebidunak EAEn, erran daiteke «aberasteko ereduari»<sup>37</sup> erantzuten diola (Fishman, 1976; Serra & Vila, 2009).

EAEn ereduaren ezarpena eta garapena gertatzeko faktore erabakigarria gurasoen eta tutoreen nahia izan da, halako moldez non inguru soziolinguistikoen faktorea (prozesuaren hasieran hori ere kontuan hartzen baitzen) praktikan bigarren maila batean geratu den. Izan ere, B eta D ereduak oso inguru soziolinguistiko desberdinetan aplikatzen dira, eta familia-hizkuntza desberdinetako ikasleak hartzen dituzte<sup>38</sup>. Faktore horrek balio du hein ba-

<sup>36</sup> Ereduen formulazioaren berri ikasteko, ikus (kontsulta, 2013ko abenduan): [http://en.eustat.es/ci\\_ci/documentos/opt\\_0/tema\\_300/elem\\_1521/definicion.html#axzz22qwUsZE](http://en.eustat.es/ci_ci/documentos/opt_0/tema_300/elem_1521/definicion.html#axzz22qwUsZE)

<sup>37</sup> Edo *hezkuntza elebidun aberasgarria* (ingelesez, *enrichment*).

<sup>38</sup> Adibidez, D eredu batzuetan ikasle gehienek 1H euskara izan daiteke (herri euskaldunetan), eta beste batzuetan, berriz, gaztelania izan ohi da nagusiki ikasleen jatorriko hizkuntza. Bestela erranik: D eredu batzuk *eusteko ereduak* dira, eta beste batzuk, ostera, *aberasteko programak* edo

tean esplikatzeko zergatik emaitzak diren franko heterogeneoak eredu bakoitzaren barrenean ere, kontuan harturik ikastetxe bakoitzean nolakoak diren parte hartzen duten faktoreak.

### 2.2.2.2. Matrikulazioaren bilakaera EAEn

Euskadiko Autonomia Erkidegoan B eta D ereduaren eskaria handia izaten ari da. Bi eredu horiek dira egiazki bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dituztenak ikas-irakasbide gisa. **8 taulan** ikus daiteke matrikulazioak izan duen bilakaera ikasmila ez-unibertsitario guzietan, 2000/01 eta 2013/14 urteen artean. Oso nabaria da B eta D ereduaren nagusitasuna: 2010/2011 ikasturtean, ikas-eredu horien bien artean hartzen zuten matrikula guzien %75. Eta 2013/2014 ikasturteko datu-aurrekinari dagokionez, berriz, norabide berean doaz datuak: B eta D ereduaren artean matrikulazioen %84 hartzen dute.

**8 taula.** Ikasleen matrikulazioaren bilakaera EAeko ikasmila ez-unibertsitarioetan hizkuntza-ereduaren arabera (2000-2013).

	2000/ 2001	2002/ 2003	2004/ 2005	2006/ 2007	2008/ 2009	2010/ 2011	2012/ 2013	2013/14 (aurrekina)
<b>A eredua</b>	119954 (%37,2)	109945 (%34,5)	103979 (%31,5)	95902 (28,1%)	92569 (25,9%)	92332 (24,6%)	80226 (21,2%)	57029 (15,8%)
<b>B eredua</b>	67838 (%21)	67205 (%21,1)	69941 (%21,2)	72479 (21,2%)	75274 (21,1%)	75301 (20,1%)	72987 (19,3%)	70906 (19,6%)
<b>D eredua</b>	132735 (%41,2)	139849 (%43,9)	154164 (%46,7)	171154 (50,1%)	187543 (52,5%)	205774 (54,8%)	223604 (59%)	231277 (64%)
<b>X eredua</b>	1950 (%0,6)	1898 (%0,6)	1863 (%0,6)	1900 (0,6%)	1993 (0,6%)	2006 (0,5%)	2020 (0,5%)	2040 (0,6%)

Iturria: EUSTAT.

*eredu aberasgarriak* dira. Eredu horien ezaugarriak hemen ikus daitezke, adibidez: Serra & Vila 2009: 28.

Datuetan ageri da gora bidean ari dela etengabe D ereduako matrikulazioa (irakaskuntza euskaraz, eta gaztelania ikasgai gisa landua), eta horren ondorioz eredu horrek hartzen dituela gaur egun unibertsitatez besteko ikasleen erdiak baino aisa gehiago: %60tik gora ere bai (ikus **8 taula**). B ereduak, berriz, matrikula guzien %20 inguru hartzen du, nahiko modu eutsian baina beheranzko joera txiki batekin, bada ere (B ereduan bi hizkuntzak dira curriculumeko edukien irakasbide). X ereduak deiturikoak (euskararik batere ez eskola-curriculumean) ez du matrikulazioaren %1 iristen (2013an %0,6).

Gainera, eredu egiazki elebidunetan eskolatzeko joera handiagoa da ikasmaila txikiagoetan, eta horrek bidea ematen du pentsatzeko B eta D ereduaren aldeko hautuak irauten duela bere orain arteko joera goranzkoan. Ondoko **9 taulak**, berriz, erakusten du matrikulazioaren bilakaera ikas-maila eta ereduak antolatua, azken lau ikasturteetan. Ehuneko horien bidez erakutsi nahi dugu urtetik urtera nola bilakatzen den matrikula, etorkizuneko egoerari buruz informazioa izateko. Ongi ikusten da norantz doan matrikulazioa azkeneko urteotan:

- 1) zenbat eta ikasmaila txikiagoa, orduan eta joera handiagoa D ereduan matrikulatzeko; D ereduan urtetik urtera matrikulazioaren portzentaje handiagoa gertatzen da, ikasmaila guzietan (HH, LH eta DBH);
- 2) B ereduak guti gorabehera matrikulazioaren bosten bati eusten dio, oro har, baina joera pixka bat beherantz;
- 3) A ereduan urtetik urtera ehuneko txikiagoa matrikulatzen da, maila guzietan (HHn, LHn eta DBHn); A ereduak %4tik behera hasi da matrikulazio berrietan (ikus Haur Hezkuntzaren datuak);
- 4) X delako ereduak bere horretan segitzen du, aldaketarik gabe: matrikulazioaren %0,5etik %0,7ra.

Hurrengo urteetan eskoletan zer egoerari erantzun beharko zaion aurreikusteko, datu adierazgarria da HHko matrikulazioak erakusten duen joera: 2013/2014an, B eta D ereduaren artean, matrikulazioaren %96 baino gehiago osatzen dute; beste aldean, A eta X ereduak matrikulazioa HHn %4tik hurbil da, EAE guziaz kontuan hartuta.

**9 taula.** Hezkuntza-ereduetako matrikulazioaren bilakaera EAEn, HHtik DBH arte (2010-2013).

	A eredia				B eredia				D eredia				X eredia			
	10/11 urt.	11/12 urt.	12/13 urt.	13/14 urt.	10/11 urt.	11/12 urt.	12/13 urt.	13/14 urt.	10/11 urt.	11/12 urt.	12/13 urt.	13/14 urt.	10/11 urt.	11/12 urt.	12/13 urt.	13/14 urt.
HH	3941 (%4,2)	3751 (%3,9)	3561 (%3,7)	3477 (%3,7)	21533 (%22,7)	20959 (%21,7)	20188 (%20,9)	19021 (%20)	68948 (%72,7)	71463 (%74)	72561 (%75)	72376 (%76,3)	445 (%0,5)	449 (%0,5)	462 (%0,5)	489 (%0,5)
LH	9020 (%7,7)	8359 (%6,99)	7651 (%6,2)	7033 (%5,79)	32943 (%28)	32657 (%27,1)	31553 (%25,8)	30697 (%24,8)	74787 (%63,6)	78815 (%65,3)	82497 (%67,3)	86004 (%69,5)	838 (%0,7)	861 (%0,7)	852 (%0,7)	854 (%0,7)
DBH	10985 (%15,5)	10155 (%14)	9407 (%12,7)	8634 (%11,5)	19783 (%28)	20010 (%27,7)	20237 (%27,3)	20217 (%26,9)	39432 (%55,8)	41690 (%57,6)	44009 (%59,3)	46270 (%61,6)	524 (%0,7)	510 (%0,7)	521 (%0,7)	508 (%0,7)

Iturria: EUSTAT.

### 2.2.2.3. Sistemaren emaitzak EAEn

Azken urteetan hainbat ebaluazio egin dira irizpide desberdinetan oinarrituak, helburu izanik aztertzea nolako emaitzak ateratzen diren hezkuntza sisteman eredu desberdinen arabera (Sierra, 2008). Laburpen gisa erran daiteke, besteak beste, EAEko hezkuntza sistema elebidunaren emaitzak gatzelanian hobeak direla euskaran baino, batez beste. Ikus ditzagun xehe-tasun batzuk.

2005. urtean Eusko Jaurlaritzak azterketa bat egin zuen, zeregin horretarako duen institutuaren bidez (ISEI-IVEI, 2005<sup>39</sup>), ikusteko ea nahitaezko irakaskuntzaren amaierako urteko ikasleek erdiesten zuten edo ez Europako Hizkuntzen Erreferentzi Marko Bateratuak B2 izenarekin ezarria duen maila (ikus Council of Europe, 2001)<sup>40</sup>. Ikasleen %55ek gainditu zuen azterturiko maila hori. Ereduka analizaturik, berriz, emaitza hauek agertu ziren: B

<sup>39</sup> ISEI-IVEI institutuaren helbidea: <http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeusk.htm>

<sup>40</sup> Euskaraz hemen ikus daiteke (kontsulta, 2014-06-20an): [http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/es/contenidos/informacion/euro\\_marko/eu\\_euro\\_mar/euro\\_markoa.html](http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/es/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/euro_markoa.html)

ereduko ikasleen %33k gainditu zuen froga (heren batek), eta D ereduko %68k ere bai (bi herenek, hortxe-hortxe). Proba pilotu bat ere egin zen, eta haren ondoren erabaki zen A ereduko ikasleekin froga hori ez egitea, hartarako gutieneko maila ematen ez zutelakoz. Lehen ere erran den bezala, kontuan hartu behar da hezkuntza/hizkuntza eredu horiek inplementatzen direla ingurune eta baldintza soziolinguistiko desberdinetan eta hartzen dituztela ikasleak familia-hizkuntza desberdinetakoak. Hala ere, denak batean hartuta, emaitzek erakusten dute ikasle-jendearen ehuneko garrantzitsu batek ez duela erdiesten nahi den eta legez ezarria den euskara maila, nahitaezko irakaskuntzaren denboran.

2007. urtean argitaratu zen *Nivel B1 de Euskara en Educación Primaria* izeneko lana (ISEI-IVEI 2007)<sup>41</sup>. Haren helburua zen aztertzea ea Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak (12 urtekoak) iristen ziren Europako Hizkuntzen Erreferentzi Marko Bateratuak ezarritako B1 mailara. Orotara datuek erakusten dute ikasleen %49k gainditu zuela froga eta %51k ez. Ereduka eginik analisia, ikusten da B ereduko ikasleen %39k gainditu zuela froga, eta D ereduaren ibilirikoko ikasleen %67k ere eman zuela emaitza on hori. Beraz, erran daiteke D ereduko %33k ez zuela froga «gainditu», eta B ereduko %61 ere gelditu zela nahi den mailatik beheitiago.

Beste ebaluazio saio batzuk ere egin ditu Eusko Jaurlaritzak. 2006ko LOE izeneko legeari erantzunez, *Ebaluazio Diagnostiko* batzuk egin dira, 2009tik hasita, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleekin (10 eta 14 urteko ikasleak, hurrenez hurren). Urte batzuetan neurtu dira irakurmena, entzumen eta idazmena baina azkenekoan idazmena ez. Ondoko lerrootan DBHko 2. mailako emaitzak erakutsiko ditugu eta iruzkinak egingen.

---

<sup>41</sup> In: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm> (kontsulta, 2014-06-12an).

**10 taula.** Ikasleen ehunekoak lorturiko errendimenduaren arabera komunikazio-gaitasunean euskaraz eta gaztelanian (2010-2013 urteak).

Ebaluazio diagnostikoak <sup>42</sup>	Ebaluazio diagnostikoak: euskara			Ebaluazio diagnostikoak: gaztelania		
	Irakurmena eta entzumena			Irakurmena eta entzumena		
Hezk. maila: DBH-2	Hasierakoa	Erdi-maila	Aurreratua	Hasierakoa	Erdi-maila	Aurreratua
Urtea: 2009/10	%33,5	%42,4	%24,1	%12,1	%59,3	%28,6
Urtea: 2010/11	%36	%42,7	%21,2	%11,9	%58,6	%29,5
Urtea: 2012/13	%37,1	%41,7	%21,2	%14,9	%55,7	%29,4

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014a.

**10 taulako** datu horiek bistan ditugula, iruzkin batzuk egin daitezke, euskarazko eta gaztelaniazko emaitzak erkatzeko: 1) hiru konpetentzia maila bereizirik (hasierakoa, erdi-maila eta aurreratua), aurkezturiko hiru ebaluazio horietan, ikasleen heren bat gutienez gelditu da beti hasierako mailan euskaraz; gaztelaniaz, hasierako maila horretan, %15 baino gutiago egon da beti; edo beste alde batetik begiratuta: erdi-mailakoak eta maila aurreratukoak batean bilduta, gaztelaniaz ikasleen %85 dira gutienez, baina euskarazkoak, multzo horietan, ikasleen %65 inguruan dabilta; 2) maila aurreratuan, gaztelaniaz, %30etik hurbil kokatzen dira hiru urteetako probetan; euskaraz, berriz, %20tik pixka bat gora.

EAEn, badira datu zehatzagoak ere, kontuan hartuta sisteman bereiz daitezkeen geruzak: hizkuntza eredia (A, B eta D) eta hezkuntza sarea (publikoa eta itundua). Ikus dezagun.

**11 taulan** bilduak dira azken hiru ebaluazio-saioen batez besteko emaitzak, aipatu geruzak aintzat harturik. Zenbakiak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar da 2009. urtean ezarri zela erreferentzia gisa batez

<sup>42</sup> 2011/12 ikasturtean ez zen Ebaluazio Diagnostikoa egin EAEn.

besteko estatistiko bat, 250 puntukoa, harekin konparatzeko ondoko urteetako datuen bilakaera. Euskararen kasuan, taula horretan ikus daiteke A eredu zifrak aisa txikiagoak direla batez besteko puntuazioak baino, eta baita beste ereduetan lorturiko emaitzak baino.

**11 taula.** Euskararen eta gaztelanien ikasleek lorturiko batez besteko puntuazioaren bilakaera (2010-2013 tartea).

Gaitasuna euskaraz eta gaztelaniaz. Batez besteko erreferentzia maila 2009: 250 puntu	A publikoa		B publikoa		D publikoa		A itundua		B itundua		D itundua	
	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz
	2009/2010	172	223	240	243	268	249	209	258	259	261	278
2010/2011	174	220	237	246	265	250	203	264	252	262	276	257
2012/2013	178	227	226	234	264	250	205	260	248	259	275	255

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014a.

Bestalde, **12 taulan** ikus daitezke titularitate eta eredu desberdinetako ikastetxeen emaitzak<sup>43</sup>. Besteak beste, aipatzekoa da A eredu publikoan ikasleen heren bat hasierako mailan gelditzen dela gaztelanien, eta euskararen, berriz, ikasleen %95 baino gehiago dagoela maila murriz horretan; ageri-agerian da A ereduaren emaitzen gutiegia euskarazko gaitasuna garatzeari dagokionez. B eredu publikoan bi heren gelditzen dira hasierako mailan euskaraz, eta laurden bat baino gehixeago gaztelanien (%27,5). D eredu publikoan eta itunduan, bietan ere emaitza onak ateratzen dira gaztelanien: B eredu itunduaren emaitzetatik hurbil, eta B publikokoak baino garaiagoak.

<sup>43</sup> 12 eta 13 taulak irakurtzeko orduan kontuan izan geruza bakoitzean %100 iristeko, batuketa egin behar dela hiru errendimendu mailen artean, urte bakoitzean: hasierako maila + erdi-maila + aurreratua = %100.



**12 taula.** Ereduen errendimenduen emaitzak euskararen eta gaztelanian, ehunekotan emanak, geruzaka.

Urteak	Gaztelania																								
	Hasierako maila (%)								Erdi maila (%)								Maila aurreratua (%)								
	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	
2008/09	40,9	13,6	18,9	12,1	17	14,2	48,3	51,9	57,3	54	55,6	56,5	10,8	34,5	23,8	33,9	27,4	29,3							
2009/10	33,9	10,6	15,9	8,4	13	10,2	54,8	55,3	62,8	55,8	62,2	60,4	11,3	34,1	21,4	35,8	24,8	29,4							
2010/11	34,6	9,7	16,3	8,9	13,2	9,3	54,2	50,9	58,9	56,8	60,7	60,5	11,2	39,4	24,7	34,3	26,1	30,2							
2012/13	34,7	12,8	27,5	11,2	16,2	12,9	49,7	50,9	53,3	54,4	57	57,5	15,5	36,3	19,2	34,3	26,8	29,6							
	<b>Euskera</b>																								
Urteak	Hasierako maila (%)								Erdi maila (%)								Maila aurreratua (%)								
	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	A pub	A itun	B pub	B itun	D pub	D itun	
	2008/09	94,7	82,9	50,1	35,7	28,4	23	4,6	14,7	38,8	47,4	49,1	51,5	0,7	2,4	11	16,9	22,5	25,5						
2009/10	96,3	73,5	49,8	33,9	25	18,2	3,5	22,6	39,1	45	47	46,1	0,2	3,9	11,1	21,1	28	35,7							
2010/11	96,3	82,4	52,9	39,5	28,2	19,1	3,5	14,8	36,9	44,5	47,7	48,1	0,3	2,8	10,2	16	24,1	32,9							
2012/13	96,9	81,8	65,9	44,1	29,5	21,8	3,1	15,7	27,4	42,1	46,8	45,5	0	2,5	6,7	13,8	23,7	32,7							

Iturria: ISEI-IVEI, 2014a.

Ikasle batek kompetentzia batean nahikotasun maila kompetentzia horren erdi-mailara iritsita erdiesten badu, komeni da ikustea eredu bakoitzean zenbat ikaslek lortzen duen gutienez maila hori. **13 taulan** ikus daitezke gutienez erdi-maila lortzen dutenen ehunekoak, euskarazko kompetentziari dagokionez: D ereduan %70 eta %80ren artean mugitzen dira erdi-maila hori lortzen dutenen ehunekoak; B eredu publikoan ikasleen heren bat sartzen da maila horretan, baina B itunduan ikasleen erdiak baino gehiago; A ereduan, berriz, publikoan %3k, eta itunduan ikasleen %18k erdiesten dute nahikotasun maila hori. Berriz ere ikusten da A ereduaren zailtasun nabarmena ikasleei nahikotasun maila emateko euskarazko komunikazio-kompetentzian<sup>44</sup>.

**13 taula.** Gutxienez erdi-maila lortzen duten ikasleen ehunekoak, geruzaka (euskaraz).

Urtea	A publikoa	A itundua	B publikoa	B itundua	D publikoa	D itundua
2009	5,3	17,1	49,8	64,3	71,6	77
2010	3,7	26,5	50,2	66,1	75	81,8
2011	3,8	17,6	47,1	60,5	71,8	81
2013	3,1	18,2	34,1	55,9	70,5	78,2

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014a.

Gaztelaniari dagokionez, berriz, **14 taulan** ikus daiteke zenbateko ehunekoak lortzen duen nahikotasun maila geruza bakoitzean.

<sup>44</sup> Emaitzak aztertzeko orduan, ereduaren eragina nabarmena eta aitortua izan da beti. Hona zer zioen 2010. urteko EDk, emaitzei buruz iruzkina eginez: «[B]istakoa da emaitza horiek ikaslea eskolatuta dagoen hizkuntza-ereduaren eraginarengatik guztiz baldintzatuta daudela» (ISEI-IVEI, 2011b: 23).

**14 taula.** Gutxienez erdi-maila lortzen duten ikasleen ehunekoak, geruzaka (euskaraz).

Urtea	A publikoa	A itundua	B publikoa	B itundua	D publikoa	D itundua
2009	59,1	86,4	81,1	87,9	83	85,8
2010	66,1	89,4	84,2	91,6	87	89,8
2011	65,4	90,3	83,6	91,1	86,8	90,7
2013	65,2	87,2	72,5	88,7	83,8	87,1

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014a.

**13** eta **14 taula** horiek elkarrekin erkatuta oso agerian gelditzen da gaztelaniazko emaitzak askoz ere hobekak direla euskarazkoak baino. D ereduak dira bakarrak euskarazko emaitzetan erlatiboki hurbiltzen direnak gaztelaniaz lortzen diren emaitzetara. Gainerako guzietan gaztelaniazko emaitzak askoz ere hobekak dira euskarazkoak baino. Hortaz, ondorio nagusi gisa, ikusirik D ereduak gaztelaniaz ere emaitza onak ematen dituztela, erran liteke D ereduak dela emaitza orekatuenak ateratzen dituen jardunbidea bi hizkuntza ofizialei dagokienez.

Orain artekoan euskara eta gaztelania hartu ditugu hemen aztergai, baina ezaguna da gaur egun hezkuntza sistemak duen joera eleaniztasunerantz. Eleaniztasunerako bidean, hain zuzen ere, esperimentazio-saio bat hasi zen 2010. urtean, *Hezkuntza Marko Hirueleduna* izenekoa (HMH) eta haren ebaluazioa agertu da 2014. urtean. Hainbat ikastetxek parte hartu du saio horretan, EAEko Hezkuntza Sailak jarritako baldintzen arabera. Baldintza horietako bat zen irakaskuntza hiru hizkuntzaren bidez garatu beharra, hizkuntza bakoitzari gutienez eskola-orduen %20 emanaz. Ebaluazioan neurtu dira hizkuntza-komunikaziorako gaitasunak hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelania eta ingelesa)<sup>45</sup>, eta baita beste kompetentzia batzuetan ere (*Ma-*

<sup>45</sup> Euskeran eta gaztelanian, irakurmena ebaluatu zen; ingeleseko kompetentzia neurtzeko, *Cambridge English Language Assessment* izeneko erakundeak espezifikoki prestatu zuen froga (ISEI-IVEI, 2014b).

*tematikarako konpetentzian* eta *Zientzia-kulturarako konpetentzian*). Saio horren ebaluazioan honako ondorio hauek bildu dira: 1) ingelesaren ezagutzan askoz ere hazkunde handiagoa izan da HMHko taldeetan, kontrol taldeetan baino; 2) oso korrelazio indartsua gertatu da ingeles-orduen eta ingelesezko gaitasunaren hazkundearen artean; 3) korrelazio hori indartsuagoa izan da euskararen kasuan LHn, eta txikiagoa DBHn; 4) korrelazio hori gaztelanien kasuan zalantzakoa izan da, edo ez da existitzen.

ISEI-IVEI erakundearen txostenean (ISEI-IVEI, 2014b), HMHren ebaluazioaz honelako baieztapenak ikus daitezke, besteak beste: euskaraz eta gaztelaniaz errendimendua antzekoa izan dela HMH taldeetan eta kontrol-taldeetan; ingelesezko errendimendua askoz ere handiagoa izan dela HMH taldeetan; beste konpetentzietan antzeko errendimendua ageri dela bi talde-motetan; «esperimentazio prozesuak erakutsi du *Matematikarako konpetentzian*, *Zientzia-kulturarako konpetentzian* eta *Irakurmenean*, gaztelaniaz eta euskaraz ez dagoela gutxiagotzerik eta ingelesezko hizkuntza-komunikazioan, berriz, irabazia handia dela»; bestalde, «badirudi ingelesean eta euskaraz, badagoela hizkuntza horiek dituzten presentzia-orduen gutxieneko atalase bat emaitzetan igoera lortu nahi bada, eta ez, ordea, gaztelanian» (ISEI-IVEI, 2014b: 69 or.).

Orain artean EAEn bertan eginiko ebaluazioen emaitzak ikusi ditugu, baina beste ikuspuntu batetik begiratuta ere (nazioarteko ebaluazio saioen behatokitik), gaztelaniazko hizkuntza-konpetentziak iduri du ez duela kalte nabarmenik jasaten ikaslea ikastetxe elebidunetan eskolatzegatik. PISA izeneko txostenak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA)<sup>46</sup> egina, 2009an erakusten ditu 65 estatutako datuak, eta baita lagin bereziak ere eskualde zenbaitetan eta autonomia erkidego batzuetan. Haietan, irakurmenaren konpetentziaz konputu orotarakoan Espainiak 481eko puntuazioa lortu zuen eta EAek, berriz, 494koa. Kopuru hori ELGako herrialdeen batez bestekoaren parean da ia-ia (ELGak 493 puntu), baina Espainiako batez bestekotik franko goitiago da, estatu espai-

<sup>46</sup> Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (gazt. OCDE: *Organización de Cooperación y Desarrollo Económicos*; ing. OECD: *Organization for Economic Cooperation and Development*).

niarrean puntuazioa 481ekoa izan baitzen. Beheko **15 taulan** ikus daitezke datuak konparatuak. Aipatzekoa da, orobat, EAeko laginaren %84,4k gaztelaniaz egin zituela idatzizko ulermenaren frogak (ISEI-IVEI, 2010).

Azken PISA txostenak, berriz, 2012ko ekitaldian, 498 puntuko emaitza eman du irakurmenari dagokionez EAEn. Gaitasun horretan ELGAren batez besteko emaitza 496 puntukoa izan da, eta Espainiako batez bestekoa, berriz, 488koa. Beraz, aipatzekoa da EAeko hezkuntza elebidunaren bidez lortu diren emaitzak beste toki batzuetako sistema elebakarrenak baino hobeak direla (ISEI-IVEI, 2014c; MECD, 2014).

**15. taula.** Irakurmen konpetentziako emaitza konparatuak PISA txostenean (2009 eta 2012).

PISAren emaitzak: irakurmena	ELGAko herrialdeen batez bestekoa	EBko herrialdeen batez bestekoa	Espainiako batez bestekoa	EAeko batez bestekoa	NFK-ko batez bestekoa
2009 urtea	493	?	481	494	497
2012 urtea	496	489	488	498	509

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014c.

### 3. Euskara unibertsitate-sisteman

Euskal Herriko alde desberdinetako hezkuntza sistemek aitzinamendu nabariak egin dituzte hezkuntza elebidunaren eskaintzan. Unibertsitatean ere nabari da hizkuntza-politika berriek nolako emaitzak izan dituzten.

Zazpi unibertsitate badira hiru euskal erkidego politiko-administratibo berezietan: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Mondragon Unibertsitatea (MU), Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA-NUP), Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA), Universidad Nacional de Educación a

Distancia (UNED), Universidad de Navarra eta Universidad de Deusto (azken hauek biak elkarte erlijioso banarenak). UPV-EHUko datu batzuk emanen ditugu hemen, erakunde horrek duen garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboagatik unibertsitateko ikasketak euskaraz garatzeko orduan; eta bestetik, UPNA-NUPen eta UPPAren zertzelada batzuk ere aipatuko ditugu, haiek ere unibertsitate publikoak baitira, baina beste hizkuntza politika batzuk aplikatzen diren lurraldeetan.

**UPV-EHUko datuak.** Arduraldi osoko irakasleei dagokienez, azken urteetako bilakaera eta etengabeko igoera ikus daiteke **16 taulan**: mota horretako irakasleen artean ia erdiak elebidunak dira dagoeneko.

**16 taula.** UPV-EHUko arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileak, arlo zientifikoaren eta hizkuntzaren arabera (2006-2013).

Arlo zientifikoa	Guzira 2006/2013	Elebidunak 2006/2013	Elebidunak (%) 2006/2013
Zientzia Esperimentalak	462 / 506	145 / 212	31,39 / 41,89
Ikasketa Teknikoak	795 / 865	225 / 385	28,30 / 44,50
Osasun Zientziak	221 / 295	52 / 113	23,53 / 38,30
Gizarte eta Lege Zientziak	1037 / 1118	461 / 632	44,46 / 56,52
Giza Zientziak	430 / 444	157 / 201	36,51 / 45,27
<b>Guzira</b>	<b>2945 / 3228</b>	<b>1040 / 1542</b>	<b>35,31 / 47,76</b>

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

Ikasgaien eskaintza bildu da 17 eta 18 tauletan. Lehenengoan (**17 taulan**) agertzen da eskaintzen diren irakasgai desberdin guzien kreditu kopurua: 22.324 kredituetatik euskaraz %80tik goiti eskaintzen da (gaztelaniaz %89'3, batzuk beste hizkuntza batzuetan ematen baitira). Beste taulan (**18 zenbakiduna**) kredituak agertzen dira baina ikasgai motaren arabera: adarreko oinarrizkoak, beste adarretako oinarrizkoak, nahitaezkoak eta hautazkoak. Iruzkin gisa erran daiteke adarreko oinarrizkoen %96 eskaintzen dela euskaraz, eta beste muturrean, hautazkoen artean %56.

**17 taula.** UPV-EHUko ikasgaien kredituak eta zer hizkuntzatan ematen diren.

<b>Gaztelania</b>	19.928'5	%89'27
<b>Euskara</b>	18.061	%80,90
<b>Bestelakoak</b>	1.601	%7,17
<b>Ikasketa planetan kredituak guzira</b>	22.324	

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

**18 taula.** UPV-EHUko kredituak ikasgai motaren arabera.

	Adar. oinarritz.		Best. adarret. oinarritz.		Nahitaezkoak		Hautazkoak		Orotara
	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	
Gaztelaniaz	4586	97,68	619,5	97,18	10145,5	95,95	4578	71,32	19929
Euskaraz	4518	96,23	607,5	95,29	9312,5	88,07	3623	56,45	18061
Beste hizkuntzak	540	11,5	96	15,06	803	7,59	162	2,52	1601

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

Unibertsitatera sartzeko hautaprobak euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke. UPV-EHU 8.000 ikaslek baino gehiagok egin zuten azterketa hori 2010etik 2013ra arteko urte bakoitzean, eta denetan ere ikasleriaren %60 baino gehixeagok hautatu zuen euskaraz egitea. Gainera, joera goranzkoa izan da: 2011n ikasleen %61ek egin zuen azterketa euskaraz, 2012an %62k eta 2013an %63k<sup>47</sup>.

<sup>47</sup> In: [http://www.ehu.es/documents/1940628/2056218/USP\\_Txostena\\_2013.pdf](http://www.ehu.es/documents/1940628/2056218/USP_Txostena_2013.pdf) (kontsulta, 2014-07-12an).

**UPNA-NUPeKo datuak.** UPNA-NUPeK eskaintzen duen euskarazko ikasgai kopurua ikus daiteke haren web orrian<sup>48</sup>. 2013/2014 ikasturtean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduak osorik eskaini dira euskaraz, eta beste 16 gradutan ere bada aukera euskarazko ikasgai batzuk hartzeko, denetara 1.359 kredituko eskaintza osatuz, gradu mailan, sei fakultate edo eskolatan. Horretaz gainera, Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntza masterrean 17 kreditu eskaini dira euskaraz.

2007ko martxoan onartu zen UPNA-NUPen *Euskararen Plan Estrategikoa 2007-2009*. Dokumentu horretan adierazten da 2006an ikasleen %21,3k euskaraz egin zuela unibertsitatean sartzeko hautapropa. Beste alde batetik, 2006/2007 ikasturtean 1.484 ikaslek erraten zuten euskaraz ongi zekitelara (unibertsitateko ikasle guzien %21,7k), eta kopuru horrek goiti egin zuen %23,8 arte (420 ikasle), urte horretan sartu berriak ziren ikasleen artean (UPNA-NUP, 2007).

**UPPAko berri.** Iparraldeaz denaz bezainbatean, UPPAn<sup>49</sup>, hiru urteko lizentzia eskaintzen da Euskal Ikasketetan, Bordele 3ko *Michel de Montaigne* unibertsitatearekin lankidetzan<sup>50</sup>, eta bada bidea izen bereko masterra egiteko eta doktoregoa ere bai.

#### 4. Ereduak norantz?

Gaur egun oraindik indarrean diren ereduak une eta baldintza jakin batzuetan asmatu ziren eta inplementatu. Jendartean aplikatzen zen hizkuntza-politikak ez zuen aintzat hartzen estatuko hizkuntza besterik (gaztelania edo frantsesa). Hezkuntza sistema, errateko, elebakarra zen. Beste alde batetik, diktaduraren garaian Espainian ez zen informazio demokratiko fidagarririk ea nolako sentiberatasuna izanen zuen jendarteak euskararen gara-

<sup>48</sup> [http://www.unavarra.es/digitalAssets/183/183514\\_GRADUAK-2013-2014.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/183/183514_GRADUAK-2013-2014.pdf) (kontsulta, 2014-07-14an)

<sup>49</sup> UPPA: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

<sup>50</sup> [http://ufr-pluribab.univ-pau.fr/live/digitalAssets/124/124274\\_GuideEtudes\\_LicenceEtudesBasques\\_2013-2014.pdf](http://ufr-pluribab.univ-pau.fr/live/digitalAssets/124/124274_GuideEtudes_LicenceEtudesBasques_2013-2014.pdf) (kontsulta, 2014-07-16an)



penari begira. Gainera, Euskal Herriaren konfigurazio soziolinguistiko heterogeneoak iradokitzen zuen trataera desberdinak egin beharko ziratekeela, inguruak erakusten zituen ezaugarrien arabera: Euskal Herriko alde batzuetan euskarak bizkortasun handia zuen, baina beste batzuetan haren presentzia hagitx murriztua zen, edo arrunt falta zen. Bestalde, jendartean ez zen eredu argirik balio zezakeenik hezkuntza sistema antolatzeke eta haietan hizkuntzen presentzia bideratzeko.

Hogeita hamar urte geroago bada eskarmentu franko sistema elebidun bat nola ezarri hezkuntzaren eremuan. Beste alde batetik, bilakaera gertatu da eta gaur egun jendarteak baditu ezaugarri batzuk diferenteak, aldaketa dakartenak orobat ikasgeletan ageri den hizkuntz panoraman, eta funtsean eztabaida behar dutenak, errealitate berriarentzako irtenbide egokiak aurkitzeko.

Dena bat harturik, erran daiteke XX. mendearen azken laurdenean erai-  
kiriko eredu-sistemak erantzuten ziola egoera bati non eskolaratzeko teno-  
rean funtsean bi hizkuntza ageri ziren (euskara eta gaztelania edo frantsesa),  
eta nahitaezko eskolatzearen azken helburu gisa jartzen zen bi hizkuntza  
ofizialak menperatzea<sup>51</sup>. Atzerriko hizkuntza bat geletan ikastea ere aurrei-  
kusten zen, baina ez zen seriozki planteatzen ikasleek zer maila lortu behar  
zuten, eta ez zen, halaber, jendartearen eskari nabarmenik ildo horretan.

Hezkuntza sistemak gaur egun ezaugarri desberdin batzuk ditu hizkuntzei  
dagokienez, eta ideia desberdinak eskolan hizkuntzak nola tratatu behar  
diren. Alde batetik, ikasgeletan hizkuntza gehiago ageri da: bi hizkuntza  
ofizialak ditugu alde batetik, proportzio desberdinetan agertzen direnak  
Euskal Herriaren eskualde desberdinetan, beren aldaera estandarrean edo/  
eta (euskararen kasuan behinik behin) dialektoetan; bestetik, beste hizkun-  
tza batzuk agertzen dira geletan immigrazioaren ondorioz, eta, gainera, etor-  
kinak oso testuinguru kultural eta linguistiko desberdinetatik datoz, bai  
beren artean eta baita lehenago Euskal Herrian ziren beste hizkuntzen al-  
dean. Errealitate berri horren aurrean hezkuntza sistemak erantzun bat ar-

<sup>51</sup> Beti ere abstrakzio ariketa bat eginez, eta Euskal Herri guzira batera harturik, zeren egoerak nahiko desberdinak baitira lurralde bakoitzean, ikusi dugun bezala.

tikulatu behar du eta hartarako ez da lehenagotik eredurik zuzenean aplika daitekeenik egoera berrian.

Bestalde, mundu globalizatu honetan, nazioarteko harremanen ugari-tzeak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien zabalkunde gaitzak (ba-tez ere Internetek) ekartzen dute ondorio gisa jendartea gero eta ohartuago eta kontzientziatuago dagoela ahal bezain komunikazio-gaitasun ona lortu behar dela nazioartean erabiltzeko egokia den hizkuntza batean. Horrek errazten eta laguntzen du (batik bat) ingelesaren sarrera ikastetxeetan, hori baita nazioarteko *lingua franca* indartsuena; orain artean dagoeneko eskola-curriculumetan ageri zen/ziren atzerriko hizkuntzari/hizkuntzei ezartzen zi-tzaizkion/(-en) helburuak baino zehatzaagoak eta premia handiagokoak ezar-tzen zaizkio gaur egun atzerriko hizkuntzari (edo hizkuntzei).

Euskal Herriko hezkuntza-sistemari ezartzen zaio, beraz, zeregina lanki-detzan aritzeko, zertarako-eta erantzun bat artikulatzeko gaur egun jendar-teak erakusten duen egoera linguistiko berriarentzat. Eta egoera berriaren ezaugarriak funtsean bi ideiatan bildu eta sintetiza daitezke: alde batetik, ikasgeletan jatorri-hizkuntza anitz direla, eta bestetik, eskolatzeko prozesuaren amaieran helburu dela komunikatzeko gaitasuna lortzea hiru (edo lau) hiz-kuntzatan: ofizialak diren bietan (euskara eta gaztelania –edo frantsesa–), eta mundu mailan nazioarteko komunikaziorako balioko duen beste hiz-kuntza batean (edo bitan). Erran liteke ereduaren sistemak balio izan duela sistema elebakar batetik (gaztelaniaz edo frantsesez ari zena funtsean) siste-ma elebidun batera igarotzeko (euskara-espainola edo euskara-frantsesa, bi hizkuntzak baliatuz ohiko eskola-jardunean). Gaur egun planteatzen da igarobidea sistema elebidun batetik sistema eleaniztun batera, hasierako egoera gisa hizkuntza anitz izanen dituen, eta helburu mailan, berriz, lortu nahiko duena komunikazio-kompetentzia garatzea hiru edo lau hizkuntza-tan, nahitaezko eskolatzearen garaian.

Jendarteak eskatzen duen aldaketa hau gertatzen da, bestalde, gaur egun-go sistema elebidunaren emaitzak jasotzen ari garen denbora berean. Ere-duen sistema honen ebaluaziorako ikerketek adierazten dute A eredu-a oraingo formulazioan garbiro ezindua dagoela legeak ezartzen duen konpe-tentzia euskaraz erdiesteko, eta beraz iduri du eredu horren ezaugarriak al-

datu egin beharko direla baldin eta haren legezko helburuak bete nahi badira. B eta D ereduak emaitza hobekak lortzen dituzte nahiz eta eredu horietako ikasleek oraindik ez duten beretu, estatistikoki, euskarazko gaitasun bat gaztelaniazkoaren parekoa, eta horrek bidea ematen du pentsatzeko sistema hobetu daitekeela. Bestalde, Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioak, goian ikusi bezala, bidea ematen du esperientzia horretan sakontzeko, hark dakartzan aldaketa metodologikoekin.

Gaur egungo ebaluazio saioetatik jasotzen diren datuek informazioa ematen digute modu dinamikoan sistemaren eraginkortasunaz edo egokitasunaz, eta bestalde, erran bezala, ez da bistatik galdu behar nolako aldaketa ari den gertatzen globalki jendartean, eta horrek nola handitzen dion konplexutasuna sistemari bere osoan. Gaur egun azpimarratzen da nolako heterogeneotasuna duten (gaur egun eta etorkizunean) hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxeetako erabiltzaileek eta profesionalek, eta horren aurrean adierazten da komeni dela erantzunak ematea testuinguruari ongi doitu. Horretara joateko bidean, alde batetik, hezkuntzako profesionalei ekimena eskatzen zaie eta, bestetik, ikastetxeen autonomia handiagoaren alde jokatzeko da. Ildo horretan, iduri du hizkuntza-ereduak modu malguagoan eta zaluagoan hartu beharko direla, inguruak erakusten dituen ezauzgarri arreta jarrita eta hezkuntza erkidego bakoitzaren ekimenari garrantzi handiagoa emanez. Hala agertzen da EAEko 2010eko curriculum dekretuan eta 2007ko Nafarroakoan ere bai (Eusko Jaurlaritza, 2010; Nafarroako Gobernu, 2007); ideia bera azpimarratzen da EAEn eleaniztasunera bidean 2014ko ekainean aterariko ebazpenean (Eusko Jaurlaritza, 2014b).

Horrela, bada, hezkuntza-sistemak gero eta konplexutasun eta pluraltasun handiagoa aurkezten du hizkuntzen aferan. Egoera heterogeneoago batetik abiatzen da eta hiru/lau hizkuntzatan erdietsi nahi da halako maila bat komunikazio-kompetentziari dagokionez. Egoera berri honek eskatzen du alderdi metodologikoetan sakontzea, horrela optimizatzeko hizkuntzen ikas-irakaste prozesuak eskolaren eremuan. Ildo horretan, ikuspegi berriak planteatzen dira, hala nola Hizkuntza eta Edukiak Batera Ikastea<sup>52</sup> (zeinen

---

<sup>52</sup> Euskaraz beste izen batzuk ere erabili dira, baina gure hautuaren arabera akronimoa HEBI izanen litzateke. Ingelesez, *CLIL: Content and Language Integrated Learning*.

bertsio elebidunean baden Euskal Herrian eskarmentu ez-gutiesteko moduko(a), eta horrekin konbinatuta baita Hizkuntzen Trataera Bateratua ere (itxura baitu horren garapena bultzatu nahi dela etorkizun hurbilean)<sup>53</sup>. Alderdi metodologiko horiek, berriz, ikastetxe bakoitzaren Hizkuntza Proiektuan integratzekoak dira, eta dokumentu horretan garatu beharko da zer irizpide eta jokabide erabiliko diren hizkuntzak ikas-irakasteari eta erabiltzeari begira, eta inguruaren ezaugarriari arreta jarri, nolako trataera eman beharko zaion hizkuntza eta aldaera bakoitzari.

Testuinguru konplexu horretan, bada eztabaida adibidez zein ote den unerik egokiena hirugarren hizkuntza sartzeko edo zenbateko esposizioaren pean egon behar duen ikasleak hizkuntza bakoitzari dagokionez, alde batetik badirelako zendentean sentiberatasun desberdinak: batzuek kezka izanen dute ingelesaren sarrera neurrigabeak euskararen normalizazioari kalte egiten ahal diolako, euskararen ezagutza orokortua atzeratzen edo ezinezko egiten delakoan, eta beste batzuek, berriz, lehen baino lehen egin nahi dute aurrera ingelesa ikastea eta menperatzea, horrela batzuetan euskararen gaia bigarren maila batean utzita. Ikuspegi eta sentsibilitate desberdin horien emaitza dira zenbaitetan azalarazten diren tentsioak, konparazio batera EAEn curriculum dekretuan izan ziren aldaketak Eusko Jaurlaritzan alderdi politiko desberdinek elkarri txanda hartu ziotenean gobernu lanetan. Iritzi desberdin horien ondorioz curriculum dekretuak bertsio desberdinak izan ditu 2007an eta 2010ean, eta disputa puntu bat hain zuzen izan zen euskarari zenbateko lehentasuna eman behar z(itz) aion.

Badira, beraz, eztabaidak hainbat alderditan ea nolako tratamendua eman behar zaion hizkuntza bakoitzari eskolaren esparruan, baina ez du ematen desadostasunak hagitz handiak diren nazioarteko erabilerarako hizkuntzan komunikazio-kompetentzia erdiesteari dagokionez. Adibide gisa bi datu adierazten ditugu: alde batetik, Gobernu ekimenek proiektu eleaniztunak sustatu nahi dituztela (hala Eusko Jaurlaritzak<sup>54</sup>, nola Nafarroako

<sup>53</sup> Eleaniztasunari eta hizkuntzak ikas-irakasteko metodologiei buruzko aipamenak ageri dira, bai EAEko eta bai NFK-ko curriculum dekretuetan.

<sup>54</sup> 2010ean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako proiektuak *Hizkuntza Marko Hirueleduna* zuen izena, eta 2014an *Eleaniztasunerantz* izendatzen da.

Gobernuak<sup>55</sup>, eta orobat Iparraldeko hezkuntza eragileek<sup>56</sup>), horrela etorkizuneko mundu globalizatuari ahal bezain ongi erantzuteko; eta bestetik, Ikastolen Konfederazioak, euskararen aldeko jarreran arrunt ezaguna den erakundeak, ororentzako laueletasuna planteatzen duela helburu gisa bere hizkuntza-proiektuan<sup>57</sup>.

Euskal Herriko jendaratean badira sentsibilitate desberdinak hizkuntza ofizialei dagokienez. Testuinguru horretan, amaierako gogoeta gisa, azpimarratu nahi dugu euskarak balio behar duela kohesio-elementu gisa, eta ez jendea gaitzesteko edo baztertzeke, eta horretarako garrantzitsua da gai horretan ahal den adinako kontsentsu soziala zaintzen saiatzea herritarren artean (Baztarrika, 2009; Euskararen Aholku Batzordea, 2009; Zalbide, 2010).

## Bibliografia

ACADÉMIE BORDEAUX, 2010, *L'enseignement du Basque dans l'Académie de Bordeaux. Année Scolaire 2010/2011*. EEP-OPLB arduradunak helarazirikoko dokumentua, 2011ko ekainean.

ALDASORO LECEA, E., 2001, «La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46, 2 (2001) 593-624. In: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/46/4605930624.pdf> (kontsulta, 2014-07-24).

AZKARATE, M., 2012, «The Current Situation of the Basque Language: Speakers», in Salaburu, P. & Alberdi, X. (arg.), 2012, *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country*. Reno-Nevada: University of Nevada-UPV/EHU, 113-135.

<sup>55</sup> Eleaniztasunari Nafarroako Gobernuak ematen dion garrantzia ikusteko: <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/idiomas-plurilinguismo> (kontsulta, 2014-05-14an).

<sup>56</sup> Ikasi nahi bada nolako jarrera ageri den Frantziako estatuko Hezkuntza Sistematan atzerriko hizkuntzei buruz, ikus: <http://www.education.gouv.fr/cid21459/les-principes-directeurs-de-l-apprentissage-des-langues.html>;edo/eta [http://www.education.gouv.fr/cid206/les-langues-vivantes-etranteres.html#À\\_l'école](http://www.education.gouv.fr/cid206/les-langues-vivantes-etranteres.html#À_l'école)

<sup>57</sup> Ikus hemen: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009.

BAZTARRIKA, P., 2009, *Babeli Gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politiko zilegi eta eraginkorra*. Irun: Alberdania.

CONSEJO ESCOLAR DE NAVARRA, 2010, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2009-2010*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2011, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2010-2011*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2012, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2011-2012*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2013, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2012-2013*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

COUNCIL OF EUROPA, 1992, «European Charter for Regional or Minority Languages, Strasbourg, 5.XI.1992». In: <http://conventions.coe.int/treaty/en/Treaties/Html/148.htm> (kontsulta, 2014-07-21ean).

———, 2001, *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Strasbourg: Council of Europe.

———, 2014, «European Charter for Regional or Minority Languages. Treaty open for signature by the member States and for accession by non-member States». In: <http://conventions.coe.int/Treaty/Commun/ChercheSig.asp?NT=148&CM=8&DF=&CL=ENG> (kontsulta, 2014-07-23).

DOLZ, J. & IDIAZABAL, I., 2013, *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Bilbao: EHUAZ.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK-EUSKALTZAINDIA, 2010, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredia 1960-2010*. Bilbao: Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (EHIK), 2009, *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Bilbo: Ikastolen konfederazioa.

EUSKALTZAINDIA-SIADECO, 1977, *Euskararen liburu zuria*. Bilbao: Euskaltzaindia-Caja Laboral Popular.

———, 1979, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbao: Ediciones Vascas.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, 2009, *XXI mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun Berritu Baterantz*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA-OFFICE PUBLIQUE DE LA LANGUE BASQUE (EEP-OPLB), 2004, «Egitura juridikoa», in: <http://www.mintzaira.fr/eu/eep/egitura-juridikoa.html> (kontsulta, 2014-06-05).

———, 2005, *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa. 2004/2005 ikasturtea*. In: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E\\_diagnostikoa\\_2004\\_2005.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E_diagnostikoa_2004_2005.pdf) (kontsulta, 2013-12-18an).

———, 2013, «2013/2014 ikasturteko datuak». In <http://www.mintzaira.fr/eu/berriak/actualite-en-basque/article/bilan-de-la-rentree-2013-2014-1.html>

———, 2014, «Convention Constitutive Modifiée du Groupement d'Interêt Public Culturel «Office Public de la Langue Basque»», in: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/EGA\\_2014/Conv\\_Constitutive\\_modifiee\\_20140320\\_signee.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/EGA_2014/Conv_Constitutive_modifiee_20140320_signee.pdf) (kontsulta, 2014-06-22).

EUSKO JAURLARITZA, 1983, «Uztailaren 11ko 138/1983 DEKRETUA, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitariar hizkuntza ofizialen erabilera araupetuz», *EHAA*, 108 zkia, 1983-VII-19, in: [http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=19830719&s=1983108](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=19830719&s=1983108) (kontsulta, 2014-06-06an).

———, 2010, *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*, in: [https://www.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/curriculum\\_vigente/dc\\_educ\\_basic\\_e.pdf](https://www.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_vigente/dc_educ_basic_e.pdf) (kontsulta, 2013-12-08an).

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA, 2013, *V inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

———, 2014a, «Hezkuntza ikasketen egitura eta antolamendua», in: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu\\_2023/a2\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu_2023/a2_e.html) (kontsulta, 2014-07-24).

———, 2014b, «Ebazpena, 2014ko ekainaren 27koa, hizkuntza-proiektu batetik bat hirueledunak (eta eleanitzak) garatzeko», in: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dib6/eu\\_2037/adjuntos/eleanitzasunerantz/eleanitzasunerantz\\_2014\\_2015\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dib6/eu_2037/adjuntos/eleanitzasunerantz/eleanitzasunerantz_2014_2015_e.pdf) (kontsulta, 2014-07-02).

EUSKO LEGEBILTZARRA, 1982, «Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko LEGEA, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa». *EHAA*, 160, 1982ko abenduaren 16koa, in: <https://www.euskadi.net/r48-vacia/es/bopv2/datos/1982/12/8201955a.pdf> (kontsulta, 2014-07-16).

EUSTAT, 2010, *Sociolinguistic survey of Euskal Herria 2006*: [http://en.eustat.es/estadisticas/tema\\_99/opt\\_0/tipo\\_3/ti\\_Sociolinguistic\\_Survey\\_of\\_Euskal\\_Herria/temas.html#axzz1Q7ZIYifO](http://en.eustat.es/estadisticas/tema_99/opt_0/tipo_3/ti_Sociolinguistic_Survey_of_Euskal_Herria/temas.html#axzz1Q7ZIYifO)

———, 2014, *Euskal Estatistika Erakundea*, in [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/indice.html#axzz38Nik14Xx](http://eu.eustat.es/ci_ci/indice.html#axzz38Nik14Xx) (kontsulta, 2014-06-26an).

FISHMAN, Joshua A., 1976, *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley, MA: Newbury House.

GOBIERNO DE ESPAÑA. INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, 2014, *Censo de 2011*, in <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do?path=/t20/e244/avance/p02/10/&file=1mun31.px&type=pcaxis&L=0> (kontsulta: 2014-06-25ean).

HARGUINDÉGUY, Jean-Baptiste & ITÇAINA, X., 2012, «Towards an institutionalized language policy for the French Basque country? Actors, processes and outcomes», in *European Urban and Regional Studies* 2012 19: 434. (Interneten, in: <http://eur.sagepub.com/content/19/4/434>).

ISEI-IVEI, 2005, *Euskararen B2 maila, Derrigorrezko Irakaskuntzaren amaieran*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

———, 2007, *Nivel B1 de Euskara en Educación Primaria. Informe General*, Vitoria-Gasteiz: SGPGV, in <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

———, 2010, *Pisa 2009. Euskadi. Ebaluazioaren txostena*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN, in: <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-EUSKADI-1TXOSTENA.pdf>

———, 2011a, *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBH-2 maila. Txosten exekutiboa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV.

———, 2011b, *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBH-2 maila. Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisisa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. Interneten, in: [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED10\\_emaitzakETAaldagaiak/ED10\\_2DBH\\_emaitzakETAaldagaiak.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED10_emaitzakETAaldagaiak/ED10_2DBH_emaitzakETAaldagaiak.pdf)

———, 2014a, *Ebaluazio Diagnostikoa 2013. Txosten exekutiboa DBH-2*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13\\_2DBHeusk.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13_2DBHeusk.pdf)

———, 2014b, *HMH 2011-2013. HMHren esperimendazio prozesuaren ebaluazioa. Txosten exekutiboa. HMH I-II*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In: <http://www.isei->



ivei.net/eusk/argital/HMH/HMH\_2014\_txosten\_exekutiboa.pdf (kontsulta, 2014-07-12).

———, 2014c, *PISA 2012 Euskadi. Eraitzen txostena eta aldagaien azterketa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In: [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/PISA2012\\_eusk.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/PISA2012_eusk.pdf)

JEFATURA DEL ESTADO ESPAÑOL, 1979, «Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco», BOE 306 de 22/12/1979: 29357-29363. In: <http://www.boe.es/boe/dias/1979/12/22/pdfs/A29357-29363.pdf> (kontsulta, 2014-06-23an).

———, 1982, «Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra», BON, 3 de septiembre de 1982; corr. err., BOE 195, 26/08/1982), in: [http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases\\_datos/act.php?id=BOE-A-1982-20824](http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases_datos/act.php?id=BOE-A-1982-20824) (kontsulta, 2014-06-23an).

MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION NATIONALE, DE L'ENSEIGNEMENT SUPÉRIEUR ET DE LA RECHERCHE, 2014a, «Le système éducatif», in <http://www.education.gouv.fr/pid8/le-systeme-educatif.html> (kontsulta, 2014ko uztailen).

———, 2014b, «Archives des résultats des évaluations des acquis des élèves de l'école primaire», in [http://www.education.gouv.fr/evaluation\\_des\\_acquis/acad4/bordeaux.html](http://www.education.gouv.fr/evaluation_des_acquis/acad4/bordeaux.html) (kontsulta, 2014ko uztailen).

MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE, 2014, *PISA 2012. Informe Español. Resultados y contexto*. Madrid: Secretaría General Técnica. In: <http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/internacional/pisa2012/pisa2012.pdf?documentId=0901e72b8195d643> (kontsulta, 2014ko uztailen).

NAFARROAKO GOBERNUA, 1986, «Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre del Vasuence», *Boletín Oficial de Navarra (BON)*, 154 zk., 1986ko abenduak 17.

———, 1988, «Decreto Foral 159/1988, de 19 de mayo, por el que se regula la incorporación y uso del vasuence en la enseñanza no universitaria de Navarra», *Boletín Oficial de Navarra*, 67, 1988-06-01. In: <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28807>

———, 2007, «Decreto Foral 24/2007 de 19 de marzo de Curriculum de Enseñanza Primaria», in <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/infantil-y-primaria> (2013-07-19an ikusia).

———, 2014a, «Estadística de Datos Básicos», in [www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Estadisticas/Estadistica+de+Datos+Basicos](http://www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Estadisticas/Estadistica+de+Datos+Basicos) (kontsulta, 2014-07-21).

———, 2014b, «Eskolatzea», in <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/estudios> (kontsulta, 2014-07-15)

———, 2014c, «Hizkuntza ereduak», in <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>

SERRA, J. M. & VILA, I., 2009, «Bigarren hizkuntzak eta eskola», in Ruiz Bikan-di, U. (arg.), 2009, *Bigarren Hizkuntzaren Didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHUAZ, 21-47.

SIERRA, J., 2008, «Assessment of Bilingual Education in the Basque Country». In *Language Culture and Curriculum*, 21:1 (2008) 39-47.

SIGUÀN, M. & MACKAY, W.F., 1986, *Educación y bilingüismo*. Madrid: Santillana.

STUIJT, M. (Daniel Sánchez-ek eguneratua), 2008, *The Basque language in Education in France. 2nd edition*. Ljouwert/Leeuwarden: Mercator European Research Centre on Multilingualism and Language Learning.

UPNA-NUP. UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA-NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA, 2007, «Euskararen Plan Estrategikoa 2007–2009», in <http://www.unavarra.es/euskara> (kontsulta, 2014-07-15ean).

UPV-EHU. EUSKARA ERREKTOREORDETZA, 2013, *UPV-EHUko Euskararen II. Plan Gidaria*. Bilbo: EHUAZ.

ZALBIDE, Mikel, 2010, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakae-ra: Balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.